Nos alegramos, y también se puede ver que cuando se quiere es posible alcanzar acuerdos. Este va a ser un ejemplo. Ciertamente, cuando he escuchado al portavoz del PNV, al señor Lerma, pensaba que votaría que no, pero bienvenido, porque creemos, y antes lo hemos planteado así, creemos que, mediante esto, algo en lo que estamos de acuerdo y también lo ha subrayado el señor Lerma, brindamos más autonomía a los ayuntamientos, puesto que son los ayuntamientos los que conocen su realidad. Además, fijarán según su realidad cuál es el tipo de gravamen que se debe aplicar. Conforme a lo cual, algunos se van a incrementar, u otros no. Yo creo que no sabemos eso. Sin embargo, cuando he dicho que se reduce a la mitad, eso es lo que decía la Memoria Económica. Con una vivienda de 85.000 euros y el 40% del terreno, en virtud de la Norma Foral que había hasta ahora, se recaudarían 249 millones. Según los coeficientes nuevos, en cambio, 114 millones. Se trata de una estimación, luego ya sabemos que la realidad es distinta. Luego, hacía lo mismo con el 15% y ¡qué casualidad que se equipararan! También he señalado, pero lo he señalado, que existen diferencias importantes entre los ayuntamientos. Por tanto, lo que se debe hacer es que cada ayuntamiento realice sus propias estimaciones para mantener sus ingresos. Nosotros/as no decimos que se deba incrementar, pero sí para mantenerlo, porque existe ese riesgo. Ellos deben estudiar cuál va a ser el efecto de los nuevos coeficientes y fijar el tipo de gravamen según eso. Creemos que con eso brindamos una

oportunidad a los ayuntamientos, y nosotros/as hemos planteado por eso esta Proposición de Norma Foral.

Para terminar, sí decir al PP que debe ser claro. Está claro que desde 2017, creo que es lo que ha dicho, se modificó la Norma Foral de Bizkaia cuando hubo otra sentencia, y estaba claro que, si no hay ganancias, no se cobra este impuesto. Sin embargo, ahora, en el Decreto Foral Normativo vuelve a quedar claro que de lo que estamos hablando aquí es de que se aplique un impuesto cuando vendas una vivienda o un bien, siempre y cuando luego obtengas un beneficio. Si no obtienes beneficios, no se va a cobrar, y creemos que también en eso se percibe cuál es la diferencia para quienes entendemos la fiscalidad como una manera de redistribuir la riqueza. Quien obtiene beneficios debe pagar, para que luego los ayuntamientos presten unos servicios públicos a todos/as, a toda su ciudadanía. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Señora Martínez Fernández, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Ez dogu ezer eguneratu behar. Izan be, Auzitegi Konstituzionalak izapiderako onartu dau Alderdi Popularrak Diputaduen Kongresuan joan dan abenduan zuotako askok onartu zenduen Lege Dekretuari jagokonez aurkeztu dauan konstituzino-aurkakotasuneko errekursoa.

Egia da urte askotan egon garana zerga hori ordaintzen, ezelako irabazirik, ezelako ondare-gehikuntzarik ez egoanean be. Egia da Konstituzionalak argi itxi ebana 2017. urtean, baina, holantxe da, orain arte zerga hori ez da ordaindu arautzeko gaitasunaren printzipioaren arabera. Zuok, ganera, orain ez dozue kontuan hartu gure Konstituzinoak zergak kobrau ahal izateko ezarten dauan lege-erreserbaren printzipioa. Dana oso eguneratuta. Guk geuk dinoguna da fiskalidatea ulertzen dogula eta, ganera, Konstituzinotik hasita, gure ordenamentu juridikoan adierazoten danez, danok zerbitzu publikoak sustatu behar doguz norberaren ahalmen ekonomikoaren arabera, baina beti proportzionaltasuna kontuan hartuta, Konstituzinoan xedatzen dan lez. Halanda be, era berean, ulertu egin behar da gobernuek zergen bidez batzen dan guztia derrigorrean, derrigorrean erabili behar dabela zerbitzu publiko onenak ezarteko eta behar dan moduan kudeatu behar dabela. Diru-sarrera publikoen bidez ahal danik eta kudeaketa onena lortzea berbabide daukan bigarren zati horri jagokonez, gaur egun askok ez dabe ulertzen, gura dabena da, edo baimena emoten dabe administrazino publikoek dirua barra-barra gastau daien, baina honako hauxe dinoe gero: “Ene bada! Datozala herritarrak, zergak igon deieguzan eta dana konponduta”.

Hori, barriz, hori ez da gure eretxia, gu geu ez gagoz ados horregaz, eta barrero dinot, gainbalioaren kasuan, EJZ kendu zanean lez, hain zuzen be, barrero dinodalako Alderdi Popularraren proposamenak persona fisikoei eta ETE-ei Gainbalioaren ganeko Zergea kentzea daukala helburu. Hara, udalenzako konpentsazino-fondoa ezarri daiteke beti. Zera esan daiteke beti: “hara, udalek uriko higituezinen bat saltzen danean sortzen diran ondare-gehikuntzak zergapetzen dabezan zergetan neurri handiagoan parte hartzeko aukerea eukitea? Hortxe dago PFEZa, besteak beste”. Zer esanik ez, herritarrei zerbitzua zelan emon behar jaken ikusteko modu desbardinak dira.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Martínez Fernández. Señor Benito Ziluaga, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko.

Begira zelan diran gauzak, Urkaregi andreagaz hartu-emonetan jarteko nekerik be ez dodalako hartu, proposamen honek babesas jasoko eban ala ez jakiteko. Izan be, tira, ohiturea ezetza izaten da, eta, egia esan, ezustekoa da Ganbera honetako gehiengoak aintzat hartzeko ekimenari baiezko botoa emotea. Zorionak emoten deusudaz horregaitik, Urkaregi andrea. Aurrerago be, zuzenketen prozesuan ikusiko dogu zein dan talde bakotxak dakarren proposamena eta adostasuna lortzerik daukagun.

Hain zuzen be, gure taldean ez genduan ezelako errazoirik ikusten aurkako botoa emoteko. Ezelako errazoirik, zerga honetan maila ezin txikiagoa daukan gehieneko taseari eusteko, ganerako lurraldeetakoaren erdia danean, Gipuzkoa kontuan hartu barik, jakina. Horrezaz ganera, azaltzen neban errazoiagaitik, danok adierazo dogunez, baina azkenengoa Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkaria izan dala kontuan hartuta, udalak eurak diralako zer tasa ezarriko daben erabagiten dabenak, baita zerga hori ezarten daben ala ez be. Halanda ze, ez zan bape zentzunezkoa ganerako lurraldeetakoaren erdia dan gehieneko tasea eukitea, eta, horrezaz ganera, udal-kutxak eta berez daukiezan zerga-tresnak eurentzat egokiena dan eran kudeatzeko orduan udalek daukien autonomiaren kalterako da.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. Señor Álvarez Castrejón, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Eskerrik asko, barriro be, mahaiburu andrea.

Nik neuk uste neban gai batzuk argi geratu zirala. Argi eta garbi geratzen da 2017. urtetik balio-gehikuntzarik ez egoan egoeretan ez zana zergarik ordaintzen. Argi-argi geratzen da Auzitegi Konstituzionalak ez dauana ezelan be indar barik itxi zergearen izaerea. Ganera, errekursoa izapiderako onartzea ezin da homologau, parekatu eta ezin dau inondik inora ezelako antzik euki horri buruzko epaiagaz edo autoagaz. Ez dakit, dinot nik. Batez be, Auzitegi Konstituzionalari buruz berba egiten badogu, beti geratzen jat zalantzaren bat gai honeetan.

Taldeen esanetan, arau hau ona da adostasunagaitik. Bada, bai, adostasunagaitik. Zer egin ugari dago oraindokarren, baina, egia esan, taldeok ados jarteko gai garanean, herritarrek eskertu egiten deuskue azkenean, ulergarria danez.

Hemen sortzen diran gai batzuek badinoskue, hain zuzen be, norantz jotzen dogun egunez egunekoan zergen inguruan daukagun asmoan. Entzun egin dot dirua hobeto dagoala norberaren eskuetan. Horretan, horretan badago ohiturarik. Hori, bai, egia da. Bai, egia da. Hobeto dago norberaren eskuetan, baina dirua gaur gu danok ordezten gaituanaren eskuetan dago ondoen: Iruarizaga jauna. Gizona hortxe dago pentsetan zer ondo doan errentearen kanpaina aurtan. Dana dala, horrezaz ganera, zure esanetan, herritarrek ez daukie egiteko makinatxurik, ez, egiteko, ez, baina hortik badago zenbatzeko makinea daukanik. Hara, danon dirua danon onurarako inbertiduten da, eta zalantza horrek ezin dau lekurik euki, ezin dau lekurik euki lurralde honetan, herrialde honetan, Espainian. Jakin badakit zuok zeozelako temea daukazuena zergen beherakadeagaz, baina gero igon egiten dozuez, hori oso gustuko daukazuelako benetan. Tira, zeuok ikusiko dozue. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Álvarez Castrejón. Para concluir el debate, señor Lerma Mentxaka, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias, de nuevo. Muy brevemente.

Lehen azaldu danez, ez gagoz aurka, eta aintzat hartzeko ekimenaren aldeko botoa emongo dogu. Errazoietakoa bat... Izan be, egia da Bizkaian, ez dakit euki badaukagun edo laster eukiko dogun, ganerako foru-lurralde bietakoa lakoa ez dan tasea eukiko gendukeana. Ez zan holan abenduan Batzar Nagusiotan dekretuaren zuzenketari buruz eztabaidatu genduean, baina bada une honetan, une honetan izango litzateke.

Lehenago be azaldu danez eta gaurko eztabaidan be agertu danez, Zergak Koordinetako Organuan lantaldea sortu zan eta sortu da, hiru lurraldeentzako arau harmonizaurako proposamena egiteko. Holan, Auzitegi Konstituzionalaren erespide hori hartuko da kontuan, likidazioek ahalmen ekonomikoaren printzipioa kontuan euki behar dabela dino-eta, baina, era berean, lurralde bakoitzeko tokiko erakundeei aurrekontuen eta diru-sarreraren arloko egonkortasuna emotea be bada asmoa, eta Foru Aldundiaren planetan dago arauaren aldaketea proponidutea ganerako lurraldeakaz batera koordinata zehatz-mehatz aztertu ostean. Dana dala, egia da epea bera zehaztuta ez dagoana, asmoa nahikoa laster egitea bazan be, uste dogulako aukerea emon behar jakola tasei jagokenez aurrera egiteko edo eztabaidatzeko, eta lurralde guztietan ezarri beharreko tasen koordinazio hori egin egin behar da arauaren eraldaketa integrean edo berrikuspen integrean tasak zehaztu baino lehen, besteak beste.

Bigarren errazoia, ostera, lehenago geunkan entzunda, hau da, azken batean tokiko erakunde bakoitza banan-banan kontuan hartuta, udal-autonomia izango da ezarri beharreko tasea azkenean zehazten dauana. Era berean, zeozer be esan gura neuke, agian. Nahita egia izan, nik neuk ulertzen dodanez, hainbat urtetan zerga honen likidazioak egiten egon ahal izan dirana eta, bertan, ahalmen ekonomikoaren printzipioa kontuan hartzen ez ebena eta une jakin batean lortu ahal izan zan irabazitik benetan bananduta egozana, ulertu be egiten dot hori neurri handiagoan eta txikiagoan egiten dala eta batzuetan zergea likidau ahal izango zala emoitza, irabazi txiki-txikia be egon ez danean. Bai, ordaintzeko betebeharra egon da, baina, era berean, merkaduaren bilakaereagaz ezelako zerikusirik ez daukien likidazioak be egingo ziran, eta baleiteke zenbateko horreek ezelako zerikusirik ez eukitea lurren balioaren gehikuntzeagaitik lortutako benetako irabaziakaz. Beste barik.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lerma Mentxaka. Una vez concluido el debate, vamos a someter a votación la toma en consideración.

¿Votos a favor la toma en consideración? ¿Votos en contra? No hay abstenciones.

El resultado es el siguiente:

Se han emitido 48 votos en total. Ha habido 46 votos a favor de la toma en consideración y 2 votos en contra. Por tanto, se toma en consideración.

A continuación, punto tercero del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2022/0000726](#))

Autor: Andrade Aurrecoechea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Asunto: Control y seguimiento de la ejecución de los fondos europeos.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2022/0000726](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (54A)

Expediente: ([11/B/20/0003329](#))

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2022/0000726SE](#))

Egilea: Andrade Aurrecoechea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Gaia: Europako funtsen gauzatzearen kontrola eta jarraipena

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000726SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (54A)

Espedientea: ([11/B/20/0003329](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno al juntero que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señor Andrade Aurrecoechea, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Joan dan Kontrolerako Osoko Batzarrean, diputadu andreari itandu neutsan ezarriko ebazan mekanismoei buruz, oposizinoko taldeok Europako fondoan hautaketan eta kontrolean parte hartzeko aukerea euki gengian. Erantzunak, ezelako zalantza barik, ez ginduzan konbentzidu, eta, horrexegaitik, mozino hau aurkezten dogu gaur.

Neure agerraldiaren hasieran, foru-diputadu andreak mozino hau sorrarazo dauan itaunari emon eutsan erantzunaren amaiera eukiko dot berbabide. Honako hauxe esan zenduan berbaz berba: “Batzar Nagusiok proiektu honeen betearazpenean egiten daben jarraipena Ganbera honen eta osogai daukazan taldeen ohiko kontrolpean dago, eta ezin da beste era batera izan”. Errealidadeak, ostera, guzurtan egiten zaitu, eta hori ez da holan une honetan, diputadu andrea. Foru Aldundiak ez deusku bizkaitarren ordezkarioi Next Generation fondoan ohiko kontrola errotan ixten. Hori dala eta, opakotasuna errotan da kontrol parlamentariora, eta, bide batez, batzarkideen funtsezko eskubideak urratzen dira. Azaldu egingo deusut: zezeilaren 11n, gure taldeak Next fondoari buruzko agirien eskabidea aurkeztu eban, eta, bertan, Bizkaiko Foru Aldundiak fondo honeen kontura eskatutako finantzaketaren helburu diran proiektuak bialtzeko eskatzen zan. Hain zuzen be, honako hauxe eskatzen jakon euretako bakotxean: proiektuaren azalpena, proiektu bakotxaren inbersinoa danetara, eskatutako zenbatekoa eta eskabidearen data.

Zer erantzun deusku Foru Gobernuak, ostera? Ez deusku itandu geuntsanari erantzun, eta, holan, ez jakuz bialdu fondo horreen kontura eskatutako finantzaketaren helburu diran proiektuak. Horreen orde, Bizkaiko Foru Aldundiak lortutako Next dirulaguntzen zerrendea bialdu jakun, eta ez jaken erantzunik emon gure galderei. Zuok, Foru Gobernuko jaun-androk, uste dozue onargarria dala gaur egun oraindokarren Ganbera honek hain garrantzitsua dan zezeri buruzko informaziorik jaso ez izana, hau da, zer proiektutarako eskatu dan finantzaketea, zein eskatu diran, zeinek jaso dauan finantzaketea eta zeinek ez.

Finantzaketea jaso daben batzuei buruzko informazioa baino ez jaku emon, eta, esan deusdanez, zerrenda huts batean. Zuok, Foru Gobernuko jaun-androk, uste dozue, uste dozue gardena eta partaidetzakoa dala fondo horreetarako proiektuak gizartearen eta Foru Parlamentuaren beraren gordeka proponidutea? Zuok, Foru Gobernuko jaun-androk, uste dozue bizkaitarrok onartu egin daikegula bertan dagozan ordezkariak eskabidetik kanpo eta fondoan betearazpenaren kontroletik kanpo ixtea? Dan-danari erreparauta, baietz emoten dau. Zuon ustetan, proiektuen zerrenda hori Foru Aldundiarena da eta ez bizkaitar guztiona. Uste dozue aukera historikoa ondaretu daikezuela, gizartea eta bere ordezkariak albo batera itxita.

Txarrena da emoten dauala holan jokatzeko dozuela errentagarritasun politikoaren bila zabilzelako, bizkaitarrentzako errentagarritasun ekonomiko eta sozialaren bila ibili beharrean. Hori guztia, ganera, fondoaren euren, Next fondoaren izaeraren beraren aurka doa, euren tresna bietan: batetik, susperraldirako zein erresilientziarako mekanismo moduan eta ekonomiaren susperraldirako fondo moduan, enplegua babesteko, sortzeko; eta eskualdeen ahalmena hobetzeko apustu moduan, amore ez emoteko, egokitzeko eta hazkuntzarako ibilbide barriak sortzeko. Ganera, ezin dogu ahaztu fondo horreei esker historian lehenengo bidez daukagula Europako Batzordearen baimena, Europar Batasunaren izenean kapitalen merkaduetan maileguak eskatzeko, zorraren jaulkipen handi-handiaren bitartez. Fondo horreek ekonomiak eta gizartea suspertzeko tresna dira eta ez administrazioek endredetako, preminen eta ezarpenaren katalizatzaile hutsak izan behar diralako.

Hain zuzen be, Foru Gobernuak ez da katalizatzailea izan, gela ilunean lan egin daualako fondoak buruz erabagiteko orduan, eta guk uste dogu berehala urten behar dauala bertatik.

Hementxe bertan, funtsezkoa da Parlamentuaren kontrola, eta, Bizkaian ez bezala, beste autonomia-erkidego batzuetan egiten da kontrol hori. Holan, Extremaduran, azpibatzerdea sortu da Europako Gaietan eta Kanpo Ekintzarako Batzordean bertan, Europako fondoaren azterketea, jarraipena eta kontrola egiteko. Balearretan, Aragoi edo Galizian, organuak eta batzordeak sortu dira, beste talde parlamentarioak susperraldi ekonomikorako estrategia diseinetako alkarrizketan sartu daitezkan. Galizian, hain zuzen be, beste organu batzuen artean, Batzorde Paritarioa ezarri da Galiziako Xuntan Galiziako Udalen eta Probintzien Federazioagaz, tokiko erakundeek parte hartzeko berariazko mekanismo moduan, baita Susperraldirako Fondoaren Lantalde Teknikoa be, batzordearen laguntza teknikoaz eta arku parlamentario osoaren partaidetzaz. Gaztela eta Leonen be, partaidetzarako tresnak ezarri dira, eta kanalak sortu dira, sektore publikoaren eta pribaduaren eta, era berean, ganerako alderdi politikoaren partaidetzeari lekua emoteko.

Hemen, ezertxu be ez. Gure eretziz, Foru Gobernuak ezin deusko errakuntza horri eutsi, zuzendu egin behar dau, gardentasunerako eta partaidetzarako ahalegina egin behar dau. Foru Gobernuak zuzendu egin behar dau, eta ezin dogu alperrik galdu Europako fondoek geure udalak eraldatzeko emoten deuskuen aukerea.

Hori guztiori dala eta, gure proposamenari zuon babesia emoteko eskatzen dogu, bertan Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen jakolako behar besteko organua sortu daijala Europako fondoaren betearazpenaren kontrola eta jarraipena egiteko. Gehienez be, 12 kide eukiko dauz, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek izentauko dabez parekotasunez, Batzar Nagusietan dagozan batzarkide-talde guztien ordezkariak gitxienez ordezkari baten bidez bermatzeko. Osaketa hori da gaur egun 7/2012 Foru Arauak onartutako Jasangarritasun Kontsejuan dagoana. Halanda ze, kontrolerako erakunde horren osaketea ez litzateke harrigarria izan beharko Aldundi honentzat.

Azkenik, EH Bilduk aurkeztu dauzan zuzenketak aitatu gura neukez. Zuzenketa interesgarri bi dira, baina apur bat aldatzen dabe gure proposamenaren xedea. Lehenengo eta behin, guk genkarren osaketea aldatzen dau, eta, esan dodanez, Jasangarritasun

Kontsejuan islatzen dana da. Guk geuk ez dogu osaketea eztabaidagaia izatea gura, holantxe sortu leitekealako, horixe bera ezarri daitekealako. Bigarrenez, lan-araubidea aldatzen jaku, batzorde honetan lan honen eukia, zuok zuon zuzenketan adierazoten dozuelako lantalde horretan emongo dala fondoan kudeaketaren barri, horren barri emongo da, banaketarako erespedeak zehaztuko dira. Guk hasieratik parte hartu gura dogu. Erabagietan, aukeraketan eta proposamenetan parte hartu gura dogu, ez dogu horren barri emoterik gura, proposamenak egin gura doguz, parte hartu egin gura dogu, proaktiboak izan gura dogu. Bizkaiarentzat zer proiektu izango litzatekezan interesgarriak erabagi daikegu, eta, baterako azterketan, proiektu horreetatik zein eroango diran aurrera erabagi daiteke talde politiko guztion artean, ez bakarrik gobernuan dagozanen artean. Halanda ze, ezin doguz zuon zuzenketak onartu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. El grupo Euskal Herria Bildu presentó una enmienda. Por ello, a continuación, señor López Odriozola, tiene la palabra.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: Muchas gracias. Buenos días, señora Presidenta. Asimismo, buenos días, junteros/as.

El tema de los fondos europeos siempre ha creado grandes expectativas, por un lado, y también grandes quebraderos de cabeza, por otro lado, así como, por último, la necesidad de una gestión adecuada de estos fondos. No hablamos de unas ayudas cualquiera. Además, los fondos Next Generation constituyen la mayor cuantía que nunca se ha puesto en marcha, y eso es algo a tener muy en cuenta.

Como sabemos, Europa derivará al Estado más de 140.000 millones de euros entre 2021 y 2026, de los que más de 70.000 millones, es decir, la mitad, serán ayudas a fondo perdido. Esto debía haber empezado en 2021, y concluirá en el año 2023, esta concesión. De momento, al menos. Para percibir ese dinero, ya sabemos que los estados deben elaborar sus planes nacionales de recuperación y resiliencia, y también deben actuar en ese sentido las administraciones locales que gestionan dichos fondos. Como también sabemos, el plan del Gobierno se basa en cuatro ejes, del Gobierno Central: la transición ecológica, la transformación digital, la cohesión territorial y social y la igualdad de género. Los dos primeros suponen el 70% de los recursos adjudicados. Por tanto, según las últimas noticias, hasta ahora se han percibido 56,6 millones destinados a EtxeTIC (22,4 millones de euros), al Centro Intergeneracional de Getxo (13,2 millones de euros) o a los centros comarcales sociosanitarios (11 millones de euros), entre otros. No son los únicos, y debemos tener en cuenta que no son los únicos.

Denporea daroagu esaten eta gai bat entzuten, eta, ahaleginak ahalegin, nekez emon ahal deusagu gura dogun bueltea. Bizkaia migretan joan behar da, bai ala bai, sektore helduetatik epe luzeagoko ibilbidea daukien beste batzuetara. Pandemiaren ondorioz ezeze, geure sektoreen heldutasunaren ondorioz be galdu dogu lehiakortasuna. Oso kontuan hartu beharko geunkean zeozer da hori.

Ez daigun ahaztu honek guztiak faktore soziala beteten danean baino ez daukala baliotasunik: lan-ezgonkortasunik sortu barik egitea.

Tira, ba, Europako fondoek, Next Generationek, batez be, ikuspegi hori euki behar dabe, eta “laguntzen ustezko harrapakariei” ezin jake “ea zer ateraten dan” espiritu hori sustatzeko aukerarik emon, lege-hutsuneetan eta antzekoetan oinarrituta. Europar Batasunaren auditoriak oso sakonak izaten dira, baina, halanda be, zentzun horretan arazoak egon dirana autortu dau Von der Leyenek.

Badakigu diruaren hotsa entzuten danean putreak agertzen dirana. Beste era batera esanda: iruzurra. Fondo publikoen erabilerearen truke hartutako konpromisoa beteten ez danean, nahi-ta egin ahal izan. Ganera, ez da egindakoaren barri emoten. Horregaitik, Alderdi Popularrari erantzuten deusagu emon deuskun erantzuna dala eta: egindakoaren barri be emon behar da, baina ipuinak kontetea ez da egindakoaren barri emotea. Hori azaldu egin behar da.

Ese es el objetivo principal del tema de hoy: asegurar que la gestión de dichos fondos sea la adecuada. En sí, se solicita la constitución de un órgano. A nuestro parecer, la estructura de gobernanza existente puede ser ese órgano, para lo que se debería incrementar su funcionalidad, sin correr el riesgo de caer en duplicidades. No debemos crear más órganos, sino que debemos aprovechar los que tenemos.

Por lo que nos consta, al menos, este órgano solo se ha reunido una vez, el día 22 de enero de este año. En dicha reunión, se habló del funcionamiento de los fondos Next Generation y del intercambio de información y la coordinación por parte de la Diputación Foral.

En esta moción, el objeto de nuestra proposición ha consistido en otorgar funcionalidad a dicha estructura. ¿Cuál es la funcionalidad?

Por una parte, que haya 12 miembros ahí, tal y como se contemplaba en la moción original, de manera paritaria, pero, luego, además de eso, que ahí también estén presentes los/as agentes sociales y económicos. Porque al final se les debe explicar por qué se elige un camino y por qué nos decantamos por el otro. Su presencia no debe limitarse a recibir información, sino que también nos deben aportar su feedback. Por lo que la comunicación sería más directa en las comisiones, en ese sentido.

En segundo lugar, nuestra segunda propuesta ha consistido fundamentalmente en marcar un ritmo de trabajo. No solo referirnos a la existencia de esa comisión u órgano, sino que marcar un ritmo de trabajo. Reunirse cada tres meses y dar cuenta de la gestión: cuáles han sido los criterios de reparto, qué problemas han surgido, cuáles han sido las modificaciones realizadas, al menos. Porque debemos tener en cuenta algo. También puede haber modificaciones. Al final, si la economía y la sociedad son dinámicos, la concesión también debe ser dinámica en ese sentido.

También proponíamos un informe anual como ritmo de trabajo, una memoria anual, lo que vendría a ser una especie de acta de esa comisión. Cada miembro también aportaría su opinión particular. Ya hemos visto que nuestras propuestas no se han aceptado, quizá porque no era el momento o quizá porque no se veía. Eso ya lo sabrá cada cual, por qué no se ha aceptado y por qué se aceptan otras. No vamos a entrar ahí, pero teniéndolo en consideración, vamos a abstenernos. Muchas gracias.

El Sr. **ISUSKIZA ARANA** jaunak: Muchas gracias, señor López Odriozola. Ahora, corresponde el turno a Elkarrekin Bizkaia. Señor Escalante Mesón, por favor, tiene la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias. Buenos días a todos/as, eta Gora Errepubliketa!

Tira, talde proposamengileak Espainiako Gobernuak Europako fondoak kudeatzeko eukan moduari buruz iradokitakoa albo batera itxita eta ados egon gaitkezan ala ez edo neurri handian publikoa dan finantzaketa hau gure ekonomiaren susperraldiari begira empresa pribadu zehatzetara bideratu daitekeala albo batera itxita, bai, bat gatzoz proponiduten dauanagaz. Izan be, Alderdi Popularra oso gauza erraza proponiduten dago ekimen honen bidez:

Europako fondoek betearazpenaren kontrola eta jarraipena zehaztea Bizkaian. Gero, ados gengoan, ados gagoz EH Bilduk proposatutako zuzenketeagaz. Izan be, ganera, argiago azaltzen eban zelan garatu behar dan batzorde hipotetiko hori. Bestetik, Parlamentu hau osotzen dogun talde guztiok batzorde horretan parte hartu behar genduala esaten zanean ados gagozala albo batera itxita, EH Bilduk, ganera, instituzioen zuzelako irazkortasuna gehitzen eutsan alkarte-sareagaz. Kasu honetan, eragile sozialei buruz berba egiten eban.

Gure aldetik, ni neu ez naz gehiago luzatuko. Uste dot, uste dogu Euzko Alderdi Jeltzalearentzat, behintzat, ez litzatekeala oso koherentea Kongresuan pandemiari buruzko erabagietan parte hartzeko eskatzen eban berberak Bizkaiko Parlamentuan gauza bera ez abaletea pandemiaren ostean. Hori esanda, beste barik, ¡Viva la República!

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Escalante Mesón. Señor Otermin Eraso, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Señora Presidenta, señoras y señores, buenos días a todos/as.

Andrade jaunak joandako Kontrolerako Osoko Batzarrean egindako itaunaren ondorioz, Talde Bereziak proposatu egiten deusku geure Foru Aldundiari eskatzea Europako fondoek betearazpenaren kontrolerako eta jarraipenerako organua sortu daiala eta Foru Gobernuaren zein gure Batzar Nagusien artean parekotasunez izentautako 12 kidek osotzea, batzarkide-talde guztiok bertan gixienez kide ordezkari bat daukiena bermatzeko.

Proposamen horri jagokonez, Euskal Herria Bilduk zuzenketa biak sartzea proposatu dau, organu horretan Bizkaiko eragile sozial eta ekonomiko nagusiak egon daitezkan eta bileren kronograma ezarri daiten, azken txostenean eretxi partikularrak adierazoteko aukerea emonda. Antza danez, argi geratu da zuzenketa hori onartu ez dana. Tira, ba, bere erantzunean, Etxanobe andreak, Foru Gobernuaren izenean, argi itxi ebazan laburtuko dodazan alderdi batzuk, oso ondo zehazten dabelako gai hau, baita gure Aldundiari jagokon zeregina be.

Lehenengo eta behin, Covid-19aren pandemiaren eragin ekonomiko eta sozialaren ondorioz, Europar Batasunak susperraldirako asmo handiko plana abian jarrea erabagi eban, zutabe bitan oinarrituta: 2021-2027ko epealdirako urte anitzeko esparru finantzarioa, bilioi bat eta ehun mila milioi euroko zuzkidurea daukana, eta susperraldirako, eraldaketarako zein erresilientziarako Next Generation fondo europarra, 750.000 milioi euroko zuzkidurea daukana. Diru hori estatu kideei emongo jakezan dirulaguntzen eta kredituen artean banatuko da. Erabagi horrek ez dauka ezelako zerikusirik 2008. urteko krisi ekonomiko finantzarioa dala eta hartutakoagaz, gaur egun Europar Batasunean dagozan gobernu progresistei esker.

Bigarrenez, horreetatik, Espainiak 150.000 milioi euro jasoko dauz, eta holantxe banatuko dira: 80.000 milioi euro, kredituetarako; eta 72.000 milioi, dirulaguntzetarako. Horreen bidez, Estaduak bere plana garatu ahal izango dau susperraldirako, eraldaketarako eta erresilientziarako. Aldi berean, Euskadik bere plana prestatu dau susperraldirako, eraldaketarako eta erresilientziarako: Euskadi Next. Bertan, Eusko Jaurlaritzek, 3 foru-aldundiek eta euskal uriburuetako 3 udalek parte hartzen dabe, eta, horregaitik, alkarregaz prestatu dabe.

Hirugarrenez, Estaduak dirulaguntzetarako jasoko dauzan 72.000 milioi euro horreek tresna biren bitartez bideratuko dira: batetik, REACT-EU fondoak, hau da, Europako lurraldeak kohesionetako susperraldirako laguntzak, 12.436 milioi euroko zuzkidurea

daukienak; eta, bestetik, susperraldirako zein erresilientziarako mekanismoa, 60.000 milioi euroko zuzkidurea daukana, proiektu eraldatzaileetan inbertiduteko. Izapide administratibo guztiak 2023ko abenduaren 31 baino lehen egin beharko dira, eta betearazpenerako epea 2026. urtera artekoa izango da. Danok badakizue zein diran datak.

Laugarrenez, fondo honek berriazko arauketea dauka, eta Estaduak egin eban administrazio publikoa modernizetako eta arintzeko preminazko neurriak onartzeko eta susperraldirako plana betearazoteko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren bitartez. Tira, ba, testuinguru honetan, zer egin dau gure Aldundiak?

Igazko garagarrian, garagarriaren 20ko 105/2021 Foru Dekretua onartu eban, Aldundiaren beraren antolakuntzearen arabera gobernantza-egiturea eukiteko. Lau dira gobernantza horrek osogai daukazan ezaugarriak. Lehenengo eta behin, Ahaldun Nagusiaren Kabinetea. Europako fondoaren arloko eskumena Bizkaira Erakarteko Zuzendaritzeari esleitzen jako, gobernurako organu moduan; eta, era berean, zeharka, Gobernu Kontseju honetako sailei.

Bigarrenez, Aldundiak Koordinaziorako Batzordea eratu dau, fondo honek behar dan lez kudeatzeko. Lantalde horrek Bizkaira Erakarteko Zuzendaritza sustatuko dau, eta laguntzea emongo deitso.

Hirugarrenez, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Sailak Aurrekontu, Ondare eta Finantzen Zuzendaritza Nagusia eukiko dau ardurapean, susperraldirako zein erresilientziarako mekanismoen ekintza-eremuan eta kontrolean, baita agintaritza eskudunak esleitzen deitaz kontu-hartzailetzan, kontrolean eta auditoretzan be.

Laugarrenez, eta ezin da beste era batera izan, Batzar Nagusiotara bideratuko dau 36/2020 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera Errege Lege Dekretuaren bidez erregistratutako eta araututako sektore publikoko proiektuetarako mobilizetan diran fondoaren ganeko kontrola. Hau da, gure foru-arauegian azaltzen dan aurreikuspenaren arabera, urtean behin gitxien Batzar Nagusiei emon behar jake egoeraren barri, baina hau guztia, kontrola, proiektu barik, ez litzateke oso zentzuzkoa izango.

Proiektuei erreparata, beste batzuetan esan danez eta, batez be, ahaldun nagusiak berak esan dauanez, legegaldiko plana osotzen daben proiektuak dira. Halanda ze, ez dogu ezer asmatu behar izan, ez dago Next Generation fondoetara aurkeztu diranak ez beste planik, agintaldiko plan hau osotzen dabenak ez beste planik. Bizkaia eraldatzeko funtsezko proiektuak dira fondo honeen bidez finantzatu gura doguzanak, Bizkaia aldatuko daben proiektu eraldatzaileak dira eta, horrezaz ganera, bat datoz Europarako lehentasuneko lerroakaz. Beti berbabide euki doguzan lau eraldaketak: sistema sozial eta sanitarioaren eraldaketa; eraldaketa digitala; beharrezko iragaitza energetikoa; eta mobikortasun jasangarriaren iragaitza.

Europako fondoak euki nahiz euki ez, legegaldiko proiektuak aurrera aterateko apustua egiten dogu, proiektu eraldatzaileak diralako eta proiektuetan sinisten dogulako. Fondo honeen kontrola erabat gardena eta zorrotza da, proiektu honetako aurrekontuen betearazpenaren jarraipena Batzar Nagusiok kontroletan dabelako politikearen aldetik. Dana dala, horrek ez dau esan gura sail sustatzaileek proiektu bakoetara emondako aurrerapausuen barri emon ezin dabenik.

Danok bat gatz helburuagaz, holantxe da, fondo honeen kudeaketa gardena, eraginkorra eta zorrotza izan behar dalako, eta, horretarako, badaukaguz beharrezkoak diran bitartekoak nahiz baliabideak. Hori dala eta, ez dogu ekimen hau babestuko. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / BATZORDEBURU** andreak: Muchas gracias a usted, señor Otermin Eraso. Señor Bagan Urtiaga, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Sí, señora Presidenta. Buen mediodía a todos/as.

Por parte del Grupo Mixto-Partido Popular se ha presentado una moción derivada de una interpelación, y se propone la creación de un órgano para controlar cómo se ejecutan los fondos europeos y para realizar un seguimiento. Además, por parte de Euskal Herria Bildu se ha presentado una enmienda a la totalidad con más detalles sobre ese órgano. Desde nuestro grupo, y la señora Etxanobe ya lo explicó en el último Pleno, basándonos en el planteamiento, no vamos a apoyar esta iniciativa.

Tribuna honetan hainbatetan lehenago azaldu danez, Europako esparruan eta Estaduko esparruan, Euskadik bere programea garatzen dau susperraldirako, erresilientziarako eta eraldaketarako: Euskadi Next. Estaduak jasoten dauzan fondoak holantxe banatzen dira: 80.000 € kredituen bidez; eta 72.000 € dirulaguntzen bidez. Ganera, tresna biren bitartez bideratzen dira: REACT fondoko dirulaguntzak, horren bidez Euskadiri hasiera batean 426 milioi euro jagokozala kontuan hartuta; eta, gero, 60.000 milioi euro, proiektu eraldatzailetako inbersino horreek finantzetako, deialdiaren bitartez eta susperraldirako zein erresilientziarako mekanismoen bidez.

Zer proiektu aurkeztu dira? Lehenago azaldu danez, agintaldiko plana osotzen daben proiektuak. Funtsezko proiektuak dira, eta hasitako iragaitza horren barruan dagoz kokatuta: gizarte eta osasun arlokoa, digitala, mobikortasun jasangarriaren arlokoa eta energetikoa. Horrezaz ganera, bat datoz Europako lehentasunezko lerroakaz. Proiektu eraldatzaile horreek Bizkaiko gizartearen preminak igarteko solas-prozesuetatik sortzen dira, gizarteak berak badauka proiektu horreen barri eta gehiengoaren babes daukie. Proiektu horreei jagokenez, zein diran, azken osoko batzarrean be azaldu ebazan Etxanobe andreak, eta euretako batzuek finantzaketea lortu dabe daborduko: 54.700.000 €proiektuetarako; berbarako, EtxeTIC, eskualdeko gizarte eta osasun arloko erreferentzia-zentroa, Gaztelugatxeko San Joanen turismo-zentro barritzailea sortzeko estrategia eta, era berean, Getxoko Belaunaldiarteko Zentroa.

Oker ez banago, jaunak, Andrade jaunak joan dan osoko batzarrean esan dauanez, ez eban uste proiektu txarrak ziranik. Ados gagozala proiektu horreekaz, baina beste batzuk aurkeztu eitekezala. Erabat ados gagoz. Era berean, nabarmendu egin eban beharrezkoa zala fondo horreen izapideak zorrotz kudeatzea, baita horren bidez finantzautako proiektu eraldatzaileen garapena be, eta beharrezkoa zala gardentasuna. Erabat ados gagoz. Horretarako, ikusten dogunez, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenen eta podere betearazle moduan daukazan kudeaketa-erantzunbeharren esparruan, arau-tresnea ezarri dau, 105/2021 Foru Dekretua, eta neurri batzuk eskaintzen deutzaz, kudeaketa hori zorrotza baizen eraginkorra izan daiten. Ez deutzuedaz barriro esango, eta aitatu be ez dodaz egingo, Otermin jaunak garatu dauzalako. Hortxe dago Ahaldun Nagusiaren Kabineteko Bizkaira Erakarteko Zuzendaritza, eta koordinazinarako zein jarraipenerako eskumenak daukazan zuzendaritza-organua izango da.

Horrezaz ganera, Koordinazinarako Lantaldea eratuko da, eta sustapenerako, asistentziarako eta laguntza teknikorako zereginak garatuko dauz. Ogasun eta Finantza Saileko Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak garatuko ditu kontu-hartzailetzarako, fiskalizazinarako, kontrolerako eta auditoretzarako eginkizunak eta eskumenak. Hori oso garrantzitsua dala uste dogu, eta gelditu egiten naz; organu espezializaua eta eskuduna, auditoretzako eta kontrol finantzarioko lanak egiteko. Era berean, giza baliabideen kudeaketearen arloko ustezko neurriak be zehazten dira, beharrezkoa izan ezker baliabide personalak zuzkitzeko.

Halanda ze, uste dot Foru Aldundiak, bere erantzunbeharren esparruan, behar besteko neurriak hartu dauzala, kudeaketa hori zorrotza baizen eraginkorra izan daiten. Gardentasuna, kontrol politikoa. Hori be esaten eban Etxanobe andreak joandako Osoko Batzarrean, eta, barriro be, Foru Aldundi honek gardentasunagaz eta agintaldiko planean azaltzen diran proiektu guztien betearazpenaren eta, era berean, finantzaketaren barri emoteko prozesuagaz daukan konpromisoa berresten eban. Halanda ze, hori kontuan hartuta, Ganbera honek eskuragarri daukazan tresna horreek kontuan hartuta, hau da, agirien eskabideak, idatzizko erantzun-eskeak, ahozko erantzun-eskeak, agerraldiak, mozinoak, itaunak, uste dogu kontrol politiko hori ez dala beharrezkoa. Ganbera honetan egin behar dan kontrol politikoa bermatuta dago, eta, kasu honetan, ganera, 105/2021 Foru Dekretu horretan agertzen dan tresna gehigarria dauka. Bertan adierazoten danez, behin, urtean behin, gitxienez, Bizkaira Erakarteko Zuzendaritzak Batzar Nagusiei emon beharko deutse abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan erregistrautako eta araututako foru-sektore publikoko proiektuen programazioaren edota betearazpenaren egoerearen barri.

Hori guztiori dala eta, uste dogu ez dogula beste organurik behar, behar beste elementu daukaguzalako kudeaketa hau eraginkortasunez, zorrotzasunez eta gardentasunez garatzeko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Bagan Urtiaga. A continuación, el turno de réplica. Para ello, señor Andrade Aurrecoechea, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Lehen, azaldu gura neutsuen guztia dala eta korrika eta prisaka ibili nazanez, lehenengo agerraldian ez dakit EH Bilduk bere zuzenketetan egin dauzan ekarpenak behar dan lez eskertzeko astirik euki dodan. Eurakaz bat ez gatozan arren, azkar-azkar azaltzen ahalegindu naz zergatik gaitzesten doguzan. Uste dot, oro har, gure proposamena desnaturalizetan dauala, gure erespidea aldatzen daualako. Guk lehenago kontrolau gura dot, ez guri horren barri emotea, eta zuok hori esaten zabilze orain. Horrexegaitik gaitzetsi doguz. Edozelan be, eskerrik asko ekarpenakaitik.

Hortik aurrera, ez gagoz ados EH Bilduk emon dauan azalpenagaz, iruzurrak edo kontrolik ezak euki dauzalako berbabide, baita Elkarrekin Podemosek be. Uste dot iruzurrak aitatu dauzala, ez dakit, enpresa piratak. Gu geu ez goaz hortik, ez goaz iruzurretik, ez goaz zeozelako iruzurra, engainua ikusten dogun lekutik, ez goaz hortik. Gu joan goaz, kontroletea gura dogulako, honako leku honeetan egiten dan lez, lehen aitatu dodanez: Extremadura, Balearrak, Gaztela-Leon, Galizia. Bertan, kontrolerako erakundeak ezari dabez, kudeaketarako erakundeak, eta, bertan, arku parlamentario horreetan ordeztuta dagozan alderdi politiko guztiak dagoz, sortzeko, fondo horreek kudeatzen laguntzeko, eta uste genduan guk Bizkaian be egin geinkeala hori. Gure eretxiz, ezin da jakin edo txarto jakin. Izan be, azaldu dodanez, informazino-eskabidea egin dot idatziz, eta informazino hori ez jaku osorik ailegau, oso parziala da, zerrenda hutsa baino ez da, proiektu guztiak eta zehetasun guztiak euki gura genduzanean. Zein eskatu dozuezan jakin gura dogu, zein ez, zein eskatu diran eta zein ez deuskuezan emon, zergaitia. Ez dakigu ezer horri guztiorri buruz, eta guk parte hartu gura genduan eta hasieratik parte hartu gura dogu, parte hartu egin gura dogu.

Zuok beti zabilze esaten, hautestontzietan irabaztean daukazuen zilegitasun osoaz, legealdiko planean zabilzela Next fondoak aurkezten, bozketetan herritarrei aurkeztu zeuntseezan proiektuak. Dana dala, nik uste dot Next fondo honeek Bizkaia osoaren onurarako izan behar dirala, eta, Bizkaia osoarentzat izan daitezcan, ganerako taldeen ekarpenak be badagoz. Uste dot bertan gagozala ordeztuta, ez genduzala hauteskundeak irabazi, baina bizkaitarren zati bat ordezten dogula eta Next fondo horreetan kontuan hartu daitekezala. Ideak,

proiektuak daukaguz, ganberetara be eroan doguz, beste batzuk hauteskundeetara eroan doguz, sartu egin eitekezan-eta. Emoten dau zuok legealdiko proiektura mugatzen zariela. Zilegi da, zuok hauteskundeak irabazi zenduezalako, ez dogu ukatuko, baina guk beste urrats bat emon gura dogu, eta, esan dodanez, kontrolerako organu horreek sortu gura genduzan, geure proiektuei buruz berba egiteko, danon artean aztertzeko eta danon artean Europara erodateko, ala ez, Bizkaia hobetzeko orduan Europaren laguntzea daukagun jakiteko. Hain zuzen be, uste dot horixe bera dala bertan gagozan guztiok lortu gura dogun helburua. Esan deusudanez, guretzat ez da nahikoa urtean behin emotea edo txarto emotea egin dabenaren edo egin ez dabenaren barri. Guretzat ez da nahikoa, guk parte hartu egin gura dogu. Horixe bera zan mozino honen helburua, lehen egunean egiten ahalegindu ginan itaunarena, hau da, diputadu andreak urratsa emotea eta egin egingo ebala esatea. Horixe bera da mozinoaren zergaitia, bere erantzunak ez ginduzalako konbentzidu. Lantaldea gura dogu, antzeko taldeak be badagoz, eta talde hori asimilau gura genduan, eurakaz lan egiteko eta bilakatzeko eta danok alkarregaz lan egiteko. Emoten dau ezinezkoa izango dala. Tamalgarria benetan! Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. Señor López Odriozola, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Para ser breve, porque, al fin y al cabo, creo que ya hemos dicho todo lo que debíamos decir. De todas maneras, me gustaría subrayar un par de cosas. Por una parte, en sí, es cierto que ya existen una serie de estructuras para eso, pero el objeto de esta moción no consiste en arremeter contra esas estructuras, sino crear unas estructuras adicionales o, al menos, complementarias.

Luego, por otra parte, Andrade jauna, zuk esan deustazu ez dala gaia iruzurrei edo kontrolik ezei buruz berba egitea. Benetan, guk geuk baietz uste dogu. Baietz uste dogu, Van der Layenek berak esan daualako holako gaxetik salbuetsita ez gagozala. Halanda ze, ez da bakarrik proiektuen alderdi proposamengilea, ez da bakarrik guk geuk parte hartzen dogula be sentidutea Bizkaiarentzat onena dala uste doguna erodateko aukerea eukitean, zer ez doan ondo eta zergaitik ez doan ondo jakitea be badalako. Askotan, arazoa ez da proiektuak berez porrot egitea, proiektua berez kea izatea baino. Zoritxarrez, hori, hemen ezeze, Europa osoan be egon da praxi hori. Hori dala eta, uste dogu zuok proponiduten dozuen lantalde horrek, zuok proponiduten dozuen batzorde edo organu horrek zati hori be hartu beharko leukeala kontuan. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor López Odriozola. Señor Escalante Mesón, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias, de nuevo.

Labur-labur. Hemen, gai bi daukaguz faltan. Batez be, koherentzia daukagu faltan. Koherentzia, orain dala lau egun Aldundiak eta Aldundiari eusten deusien taldeek paparra, paparra atera ebelako partaidetzarako daukiezan planei buruz berbetan, eta, orain, hemen ikusten dogunez, eusten deusien taldeek gaitzetsi egiten dabe, hau da, beste talde batzuek Bizkaia osoan eragina daukien erabagietan parte hartzea. Edozelan be, koherentzia hori be ez da emoten Ebro kurutzatutakoan, hauxe bertan dabilzalako eskatzen. Gero, bestetik, ez dago, uste dogu ez dagoala koherentziarik, planetarako, Europako fondoetarako ezer barririk defendiduten ez zagozela adierazotean. Egunkarietan, zera esan dozue, ostera: “hara, boto-

emoile bizkaitarra, zenbat gauza egingo doguzan Europako fondoen bidez”. Koherentziarik ez daukala uste dogu.

Labur-labur esanda eta lehen esan doguna kontuan hartuta, Alderdi Popularrak aurkezten dauan ekimenaren aldeko botoa emongo dogu. Bai, autortu egiten dot, lehen esan dogunez, begi hobeez ikusten gendua gaitzetsi dozuen zuzenketea, uste dogulako euki handiagoa emoten deusala. Dana dala, guk geuk Alderdi Popularraren proposamena egokia dala uste dogu.

Por nuestra parte, esto es todo. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Escalante Mesón. Señor Otermin Eraso, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Eskerrik asko. Gure eretxiz, eten barik emoten da informazioa. Politika Orokorrari buruzko Eztabaidea, Aurrekontuei buruzko Eztabaidea daukagun bakotxean, iragaitza berberak, proposamen berberak urtetan dabe beti. Dana emoten gabiltz, gero Europa eskatzen jabilkunagaz bat datozen aurrerakuntza horreek, eraldaketa horreek ahal danik eta lasterren abian jarri daitezkan. Guretzat oso ona eta oso zorionekoa da fondo honek ailegetea, behar dan guztian abian jarri doguzan proiektuen zatia osatzeko, ezarteko eta sustatzeko, eta, baliabiderik badago, ezin hobeto. Ostantzean, geure baliabideen bitartez aterako doguz aurrera.

Agirikoa danez, beste proiektu batzuei buruz be berba egin geinke. Guk geuk interesa daukagu, beti dinogu, behin eta barrero, interesa daukagu, Ermuko saihesbidea osatu daiten. Oso interes handia daukagu, Errekaldeko zubibidea kentzeko azterlanak hasi daitezkan. Horregaz guztiagaz danok gagoz ados. Uneotan, ostera, lau iragaitzak daukaguz. Ezin da esan eztabaidarik ez dagoanik, ezin da esan zeozelan ekimen honeen kontrolik ez dagoanik, dana Ganbera honetatik igaroten danean eta, sail guztietan, geure galderei erantzuteko behar beste informazio daukagunean.

Zalantzea sortzen da, hauxe esatean: “egiten ez dabenez, zeozelako ezkutaketea dago hemen”, hau, ez dakit, danoi tokau jakun loteria izan balitz lez, eta, horren ondorioz, ordeztan doguna ordeztan dogula be, gizarte zibila eta mundu guztia etortea eta berba egitea eta eretxia emotea eta danok egitea ona izango balitz lez. Ez dakit. Uste dot nork bere eginkizuna daukala, nork bere zeregina dauka, guk geuk erantzunbehar hori daukagu herritarren aurrean, Bizkaiarentzako onena aurrera aterateko ahalegin handia egiten dogu. Ganera, uste dogu legealdiko plana oso ondo egokitzen dala eta Gobernuko programan itunduta dagoala. Ondo egokitzen da Bizkaiak hurrengo urteetan behar dauanera. Gustuko eukiko dozu edo ez dozu gustuko eukiko. Batzuentzat ez da nahikoa izango; eta, beste batzuentzat, barriz, hobezina. Eztabaida hori politikoa da, ostera. Halanda be, ezin da zalantzan jarri egiten gagozana gardentasunez egiten gagozana, egiten gagozanean danaren barri emoten doguna eta informazio egokia euki gura dauanak badakiana nora jo eta zelan egin behar dauan eskaerea.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, eskerrik asko. Danetarik dago apur bat, danetarik dago apur bat. Hara, Martínez andrea, espainiarrei konfiantzarik emoten ez deutsana erromerian doazan “gaitanak” dira, eta, bertan, Paco txikia eta belatxiki polita baino ez dira faltau. Horreek emoten dabena ikarea da. Ostantzean, zuok ez zagoze, dinot, zuok ez zoaze, zuok eroan egiten zaituee.

Bestetik, konfiantza askorik be ez dabe emoten 6 €ko eskunarru horreek, 2 zentimoko eskunarru horreek, ez, hori be ez. Izan be, ezin dau konfiantzarik emon lider politiko bati entzuteak administrazioak aberasten dagozala esaten, eta hemen entzun egin da, baina, tira, erabat argi eta garbi dago batutako dirua ez doana administraren boltsikora, batutako dirua ez doana administrazioen boltsikora, batutako dirua herritarren preminetara doa. Hara, gehiago edo gitxiago asmauta, horixe be egia da, hori egia da, gehiago edo gitxiago asmauta, baina gero zuok baino gehiago, berme osoz. Izan be, hara, behin eta barrero dakarzue zergen igoerei buruzko gai hau. Zera inoan Feijóo jaunak: “zergak jatsi behar dira, modu onena dalako ondoizate-estadia egon ezker”. Zuon alderdiak, ostera, bi biderrez igon eban BEZa; bi biderrez, OHZa; 5 biderrez, PFEZa; lau biderrez, Soziedadeen ganeko Zergea. Loterien ganeko Zergea sortu eban, ekoizpen elektrikoaren balioaren gehikuntzearen %7 onartu eban. Elektrizidadearen ganeko Zergea onartu eban, %5,11. Argindarraren BEZa igon eban %21era. Ez dakit, berrikusi, berrikusi.

Bai, nik neuk ekintza-batasuna aitatu dot, zuk batzorde horren bidez proponidu dozun kontzentrazio-gobernu horretan gu tartetxu batean onartzeko adeitasuna bazeunkan be. Tira, zuk onartzen badozu, batasunean lan egingo dogu.

Horretatik guztitik harago, ezin dogu, eta, egia da, eztabaida-ereduak holantxe eskatzen dau, baina talde biek proposamen desbardinak egin dabez. Egia da batean apur bat gehiago orokortzen dana, eta nik neuk orokortasun horretatik aldendu gura dot. Beste batzuetan, ostera, apur bat gehiago zehazten da, ezin dodaz aukera guztiak kontuan hartu. Dana dala, bai, ezinbestekoa da herritarrei segurtasun eta konfiantzako, estaldurako mezua igortea eta, holan, gu geu lausoxeagoak diran jarretatik apur bat aldentzea. Ez dago ezer nahasirik edo lortu bakorik edo oparorik, tira, baina, bai, egon daiteke lausoxeagoa dan zeozer. Honelako une batzuetan, hain zuzen be, uste dot zehaztasun apur bat gehiago beharko litzatekeala. Egia da, barrero dinot, ez da berbera talde batek proponidutakoa, zuk zeuk esan dozu, hau orokorragoa da, zurea, ha zehazxeagoa da.

Egia esan, aintzat hartzeko, De Madariaga andrea, modu sakonagoan proponidu beharko litzateke. Ondo da, nik neuk esan egingo dot niretzat zer diran neurri zehatzak. Hara, gustuko ez badaukazue be, erregai-litroko 20 zentimoko gitxieneko hobaria dago. Neurri ona dala uste dot. %15eko gorakadea bizitzeko gitxieneko diru-sarreran. Ona dala be uste dot. Bonu sozial elektrikoaren luzapena 600.000 familiarentzat, argindarraren fakturako zerga-beherapenen luzapena edo nekazaritzako eta abeltzaintzako sektoreetarako, argindarraren industria intentsiborako edo gaserako eta garraiorako laguntza zuzenak edo laguntza zuzenentarako 450 milioi euro edo Hidrokarburoen ganeko Zergearen hileko itzulketea edo Bidezko Prezioan egindako Lanari buruzko Legea. Energiaren arloko neurriak; esate baterako, gaserako erreferentziako prezioa finkatzeko tresnea, sistema elektriko karguaren beherapena, 1.800 milioi euro. Hau da, ezin dogu ahaztu bertan, zapaltzen gagozan zoruan, 270 milioiko gerakina daukagula proiektu estrategikoetarako. Batzuk, hobeak; beste batzuk, txarragoak. Dandanak, Bizkaiko herritarrek gozetako aukerea euki daien edo, gitxienez, euren bidez baldintza onenetan sentidu daitezkan. 143 milioi euro, inbersinoa eta merkataritzaren etorkizuna sustatzeko. Esan barik doa neurri zehatzak dirana. Beste neurriren bat hartu daitekeala? Zalantza izpirik be ez daukat, baina zehaztasunerako, segurtasunerako, ikugarriako, hementxe azaldu barri dodana. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Álvarez Castrejón. Por último, para concluir el debate, señor De Luis Zelaia, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **DE LUIS ZELAIA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Ilardia andrea, ez dot zure amaierako doinua ulertzen. Aldundi hau, beste batzuetan esan danez, kaltetutako sektore dan-danakaz batzartu da. Gure betebeharra da. Holantxe egin da, eta holantxe segiduko dogu lanean.

Bigarren zatirako xisterei jagokenez, ez, ez daukagu ez ezelako xisterarik ez magia-ekitaldirik bigarren zati honetarako, benetako neurriak baino ez daukaguz. Aitazen ahaleginduko naz, ezagutzen dozuezala uste dodan arren. Beste puntu bat baino ez. Zerga-aldaketeari jagokenez, De Madariaga andrea, esan egin behar deusut ez dinogula aldatu ezin danik, aldatzea beharrezkotzat jotzen ez dogula baino.

Hori esanda, uste dot zuon eskaerei erantzuna emoteko gai izan garala lehenengo agerraldian, eta, Aldundi honen kudeaketa-modu askogaz ados ez zagozela jakin arren, zentzundunak izan zaitezela eskatzen deusuegu, abian jarri barri diran neurriei denporea emon deiezuela, zer eragin daukien ikusteko erea euki daigun. Ez jo betiko diskurso berberera, aurrez aurre jartekora, adostasuna bilatu daigun.

Atzo hartutakoak lako neurriak. Bertan, hain zuzen be, Bizkaiarako 270 milioi euroko inbersinoa onartu da, bizkaitarrentzako proiektu estrategikoak egiteko, zeuok eskatzen zenduen lez. Kasu askotan, ganera, gaur bertan proposamengileak diran taldeek eskatutakoak dira; berbarako, Ganbera honetan hainbatetan eztabaidatutako proiektua dan Galdakaoko metroa abian jartea, 180 milioi euroko zuzkidurearen bidez; Leioako Avanzada estaltzea, hamarkadetan autobideak banatu dauan herria lotzeko, 65 milioi euroko zuzkidurearen bidez. Behin eta barriri be eskatu diran eta, horren ondorioz, Bizkaiko herritarrentzat eta gizartearentzat interesgarriak izango diran bide berde barriak sortzea, zeuok eskatzen zenduen lez, 2 milioi euroko zuzkidurearen bidez. Edadekoentzako foru-egoitzak eraldatzea bizikidetzan-unidadeen eredu barriaren pean, 8,7 milioi euroko zuzkidurearen bidez: 7,2, Leioako egoitzarentzat; eta 1,5, Elorrikoarentzat. Baztertuta bizi diranei laguntzeko etxebizitzak erostea, 8 milioi euroren bidez. Horrezaz ganera, lehen sektorerako neurrien txortea be hartu behar dogu kontuan: 1,5 milioi, talka-planerako; eta beste 1,5 milioi, baso-laguntzetarako eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Mendiak erostea basoak tokiko espezieen bitartez barritzeko eta, holan, geure naturaguneak hobetzeko, 2,6 milioiko zuzkidurearen bidez.

Neurri-txorta horretatik aparte, gogoan euki Aldundi honek hartutako zerga-neurriak, beste 100 milioi euro inbertiduteko. Honako honeetxek dira: zergen ordainketea berme eta interes barik geroratzea, PFEZko ordainketa zatitua salbuestea, autonomoentzako eta enpresa txiki-txikientzako gastuaren forfaiata handitzea eta, holan, honako sektore honeei lehentasuna emotea: logistikea, nekazaritzea eta abeltzaintzea. Azkenik, ekoizle txikientzako laguntza zuzenak: batez beste, 3.200 €ustiategiko.

Neurri horreek guztiek helburu bakarra daukie, hau da, ziurbakotasuna eta kostu energetikoen gorakadea nagusi diraneko abaguneko inguruabar honeetan ekonomia bera barriri dinamizetea eta indartzea. Euretako asko bat datoz zuon eskabideakaz, baina beti-beti bidean inor itxi barik eta beti-beti eskuragarri daukagun zerga-araubidepean. Ganera, lehen esan dodanez, bidezkoa, progresiboa eta egokia da gaur egun abagunekotzat jotzen dogun egoerarako.

Hori dala eta, bigarren agerraldi honetan adierazo dodanez, goazan bat eginda eta denporea emon deiegun hartu barri diran neurriei, zuzenak dirala uste dogulako, baina beti gagoz adi-adi sortu daitezkezan premia barriei aurre egiteko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor De Luis Zelaia. Una vez concluido el debate, vamos a someter a votación las mociones.

En primer lugar, vamos a someter a votación la moción presentada por parte del grupo Euskal Herria Bildu. ¿Votos a favor de esta moción? ¿Votos en contra? No hay abstenciones.

El resultado es el siguiente:

Se han emitido 47 votos en total. Ha habido 14 votos a favor, 33 votos en contra y ninguna abstención. Por tanto, no se ha aprobado la moción.

A continuación, vamos a someter a votación la moción presentada por parte del grupo Elkarrekin Bizkaia. ¿Votos a favor de la moción? ¿Votos en contra? ¿Abstenciones?

Por tanto, el resultado es el siguiente: se han emitido 47 votos en total. Ha habido 5 votos a favor, 33 votos en contra y 9 abstenciones. Por tanto, tampoco se ha aprobado esta moción.

A continuación, punto sexto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2022/0000732](#))

Autor: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Asunto: Las unidades convivenciales de las residencias de personas mayores.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2022/0000732](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (56A)

Expediente: ([11/B/20/0003335](#))

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2022/0000732SE](#))

Egilea: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Gaia: Adineko egoitzetako bizikidetzta unitateak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000732SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (56A)

Espedientea: ([11/B/20/0003335](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Duque Santacoloma, tiene la palabra.

La Sra **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Muchas gracias. Buen mediodía a todos/as.

Yo voy a cambiar un poco el tono, y quizá comience a hacer algo que no es habitual. Quiero dar las gracias a Jane Eyre, por su predisposición y su actitud para alcanzar un acuerdo, por lo que quiero darle las gracias por eso.

En el pasado Pleno de Control, interpelamos al Diputado de Acción Social sobre el nuevo modelo residencial, es decir, sobre las unidades de convivencia. El objeto de esta nueva estrategia consiste en avanzar en la personalización de la atención a personas mayores, y el objetivo consiste en brindar una atención personalizada.

Desgraciadamente, debido a la pandemia sanitaria, las residencias han sido uno de los espacios sociosanitarios con mayor transmisión del virus del Covid-19. Como consecuencia de ello, se abrió el debate sobre el modelo residencial, o, mejor dicho, se abrió de nuevo. Eran muchas las voces que reclamaban desde hace tiempo que se reformaran las políticas de cuidados, fundamentalmente, que se modificara ese modelo residencial actual. Un modelo obsoleto, que no satisface las necesidades de sus residentes, ni tan siquiera las condiciones laborales de su personal. Lo que se refleja en la lucha llevada a cabo por parte de los/as trabajadores/as para la mejora de sus condiciones en los tres territorios de la Comunidad.

Como he señalado, la crisis del Covid-19 puso el modelo residencial en el centro del debate sobre políticas públicas de cuidados, y se alcanzó un gran consenso social. Necesitábamos, necesitamos un nuevo modelo residencial. En EH Bildu, vamos más allá, y, hoy, mantenemos que necesitamos un nuevo pacto social sobre políticas de cuidados, necesitamos un sistema público de cuidados. Continuamos defendiendo la necesidad de un sistema público que vaya a responder de manera integral al reto demográfico que tenemos ante nosotros/as, pero seguiremos buscando acuerdos y puntos de encuentro para avanzar en esa dirección.

Por ello, cuando el Diputado General Unai Rementeria anunció en el Pleno de Política General que iba a modificar el actual modelo residencial hacia un modelo que avanzara hacia pequeñas unidades convivenciales, le escuchamos con atención y gran interés. Como hemos señalado en más de una ocasión, en gran medida estamos de acuerdo con el decreto que regula las unidades de convivencia, con la filosofía, con lo que se recoge sobre el papel, pero también tenemos dudas sobre cómo se va a implementar dicho modelo, fundamentalmente. Tenemos dudas.

Por ese motivo, hemos presentado muchas iniciativas, tanto en las comisiones como en esta Cámara. Así, en el anterior Pleno de Control interpelamos al Diputado, motivo por el que también presentamos hoy esta moción.

Quiero recordar las palabras del Ararteko, el señor Lezertua Rodriguez. Solicitamos una comparecencia en comisión sobre el informe relativo a las consecuencias que fueron provocadas por el Covid-19 en las residencias, y, hoy, quería destacar una serie de declaraciones realizadas en la Comisión de Acción Social. Lo voy a leer literalmente. Lezertua Rodríguez jaunak, Arartekoak, zera inoan Gizarte Ekintzako Batzordean: “egoitza-zentroen egitura arkitektonikoa kutsatzeko arriskutik babesteko elementua dala konturatu gara. Agirian jarri da lotune adierazgarria dagoana zentroen tamainuaren eta Covid-19agaitik kutsatzeko arriskuaren artean, eta, horren ondorioz, handiagoa izango litzateke plaza gehien daukiezan zentroetan”. Bere esanetan be, txosten horretan zentroei buruz azaldutako eta azterketa estadistiko horreetan kutsatzeko arriskuagaz lotura nabaria eukana egiaztatu eban azken ezaugarria bizikidetzaren unidateen bidezko antolaketa izan zan, zentroetan %43 gitxitzen ebalako Covideko kasuen kopurua. “Aurrekoagaitik”, esaten euskun Arartekoak, “argi dago zentroen eredu arkitektoniko eta funtzionalari buruz hausnartu beharra dagoana, kutsapenen arriskuan daukan eragina kontuan hartuta”.

Está claro que el consenso en torno a esta cuestión es absoluto entre profesionales y entre partidos políticos, porque un modelo residencial más pequeño y la organización en unidades convivenciales reducirían significativamente el riesgo de contagio por un virus como el Covid-19, pero no solo eso, asimismo, se adapta mejor a ese nuevo paradigma residencial basado en el bienestar de las personas.

Ese consenso es incontestable, es evidente, por lo que creemos que debemos profundizar en las fortalezas, pero también en las posibles debilidades. ¿Ese nuevo modelo residencial puede atender al perfil actual de las personas mayores que viven en residencias de Bizkaia? Esa es nuestra duda, ya que es un perfil cada vez más complejo que requiere unos cuidados de mayor intensidad.

Esta fue la respuesta del Ararteko cuando yo le pregunté concretamente por eso: “EH Bilduk inoanari jagokonez be, baleiteke egoitza txikien eredua, zeozelako autonomia-mailea daukienei oso ondo egokitzeo aukerea emoten badeutse be, egokiena ez izatea mendeko handientzat. Horrek egoiliarren sailkapenagaz dauka zerikusia. Egia esan, kasu batzuetan, ebaluau egin beharko da, mendeko handien kasuan, zelako egoitzak behar dabezan. Dana dala, abian dagoan lana da”, esaten euskun, “neurri batean, inguruabarren ondorioz be bultzatuta, agian”. Él terminaba, ya que se me agota el tiempo, diciendo que “honi guztiari buruzko azterketea dago abian, sakondu egin behar da”. Eso es lo que él decía. Que las distintas administraciones estamos reflexionando al respecto en distintos lugares, y, por ello, hoy hemos querido traer aquí esta moción. Esas dudas que pretendemos aclarar para profundizar en esta reflexión. En el segundo turno, continuaré explicando cuáles son los puntos de esta moción. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Duque Santacoloma. Los grupos Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos presentaron una enmienda. Por tanto, a continuación, señora Campo Prieto, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra. Sin embargo, he de comunicarles que en dicha enmienda no coincide la versión en euskera y en castellano, en lo que respecta al primer párrafo. La correcta es la original, es decir, la versión en euskera.

Tras dicha observación, señora Campo Prieto, tiene la palabra.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Duque andreak gogoratu dauanez, urteak daroaguz hausnartzen aldaketa sozial eta demografikoen ondorioz ezinbestean eraldatu behar dogula gizarte-zerbitzuen eredua, oro har, eta mendekoak diran edadekoen arrete, batez be. Gaur, barriro be, horixe eukiko dogu berbabide.

Instituzino zein administrazino guztiok eta era bateko eta besteko giza talde sozialak bat gatoz pandemiak prozesu hori azkartu dauala esatean. Sistemearen gabeziak jarri dauz agirian, eta, zuzentzeko, aldaketea emon behar zan personak eta euren zainketak erdigunean jarten ebazan egoitza-eredu barrirantz.

Batzar Nagusiotan, behin baino gehiagotan eztabaidatu dogu horri buruz, eta ados egon gara egin beharreko aldaketetako bat edadekoen egoitzak bizikidetzta-unidade txikiagoetan antolatzea zala esaten zanean, talde guztiok beharrezkotzat jo dogun arreta banakakoagoa eskaintzeko aukerea emoten dauan formula dala kontuan hartuta. Personen preminetara hobeto egokitzen dan arrete, arlo fisikoan eta emozionalean autonomoagoa eta osasungarriagoa dan bizimodua eskaintzeko. Urratsak emon doguz, eta ardatzak zein erespideak zehaztu doguz, antolakuntza-modu barri hori apurka-apurka ezarteko eta, era berean, egoitza-zentro bakotxa egokitzeo. Horrezaz ganera, adostasunak lortu doguz, honako honexetarako beharrezkotzat jo doguzan aldaketak bultzatzeko: kalidadeko arreta hori bermatzea, datuen bilketea hobetzea, beharrezkoak eta nahikoak diran beharginen ratioak hobetzea, euren prestakuntza hobetzea, euren lana duintzea, egoiliarren osotasun fisikoa bermatzen dauan

prebentzinoa hobeia izatea, personen duintasuna babestea. Talde guztiok ezagutzen doguzan neurriak bultzatu doguz, eta ez daukagu banan-banan zertan gogoratu.

Era bateko eta besteko administrazioek be zehaztu dabez protokoloak eta arautegiak, baita Bizkaiko Foru Aldundiak be, Eusko Jaurlaritzan 126/2019 Dekretua berrikusten dabilzala be ahaztu barik.

Azken batean, urratsak emon doguz, personan, bere duintasunean eta bere eskubideetan oinarritutako arreta-eredu horretarantz aurrera egiteko eta egoitzen egokitzapena bultzatzen segiduteko. Ganera, beste batzuetan esan dogunez, euren titulartasuna eta kudeatzeko modua edozelakoak dirala be.

Gaur, EH Bilduk mozinoa aurkezten deusku, Aldundiari abian jarritako bizikidetza-unidadeei buruzko txostena egin daijala eskatzeko, eta bat gatoz proposamenaren egokitasunagaz. Guk beti euki dogu eta eukiko dogu konpromisoa abian jarten diran politika publikoen, neurrien ebaluazinoagaz.

Gure ustetan, datuak lortzea eta onurak eta sortu leitekezan zailtasunak be baloretea ariketa erabilgarria da, ikasteko, hobetzeko, egindakoaren barri emoteko be eta iragaitza-prozesu honen gardentasuna bermatzeko. Hori dala eta, zuzenketea aurkeztu dogu Nacionalistas Vascos taldeagaz, EH Bilduren proposamena osotzeko asmotan. Bertan, hain zuzen be, Aldundiari eskatzen deusagu urtearen amaieran abian dagozan bizikidetza-unidadeei buruzko ebaluazino-txostena egin daijala, 2022an batutako datuak kontuan hartuta. Txosten horretan, honako honexeri buruzko informazioa azaldu beharko da gitxienez: erabiltzaileen profila, beti-beti norberaren datuen babesa bermatuta; bizikidetza-unidade bakoitzeko plazak eta bertan bizi diran lagunen kopurua; bizikidetza-unidadeetako talde profesioaletako kideen profil profesionala, datuen babesa be errespetata; bizikidetza-unidadeak daukiezan zentroetako beharginen ratioa; bizikidetza-unidadeak baimentzeko orduan zentroek daukiezan zailtasunak eta eragozpenak; egiten diran berariazko ikuskaritzetako ondorioak; eta egoiliarrentzat zein senideentzat sortutako onuren azterketea.

Txosten hori egindakoan, Gizarte Ekintzako Batzordean aurkeztuko da. Gaur be, beste batzuetan lez, talde guztiok helburu berberagaz bat egingo dogulakoan gagoz, hau da, azkenean, errazoiak errazoi, egoitzan bizi behar diranentzako arreta onena bermatzea. Gure helburua horixe bera da, behintzat, ganerakoek zer erabagiten daben zain. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Campo Prieto. Señor Lamborena Barreras, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LAMBORENA BARRERAS** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

En esta Sesión Plenaria de hoy, vamos a someter a debate la moción presentada por parte de Euskal Herria Bildu sobre las unidades convivenciales.

Mozino honen aurkezpena bizikidetza-unidadeak egoitza-zentroen sarean abian jarteko prozesuaren inguruko interesaren adierazgarri dala uste dogu, eta, ahal danik eta erantzun onena egituratzeko borondatea daukanez, pozarren gagoz. Guretzat pozgarria da jakitea bertan ordeztuta gagozan talde batzuok 2020ko irailaren 28an ahaldun nagusiak Batzar Nagusiotara ekarri eban eredu honetan ekarpenak egiteko asmoa daukaguna. Urtebete eta erdi geroago, barriro gagoz bertan horri buruz berbetan, baina oraingoan errealdadea da. Bizkaian egoitzen arloan egituratutako zainketa-eredua da, ikasbide euki gura dogu eta ebaluau egin

behar dogu. Gizarte Ekintzako diputaduak askotan emon deusku ereduaren ezarpenaren barri; azkenengo biderrez, joan dan martiaren 30eko Osoko Batzarrean. Bere agerraldian, mozinoan bertan azaltzen diran gai batzuk argitu euskuzan, eta adierazo egin eban Bizkaiko egoitzetan bizi diran lagun guztiak izan daitezkeza banakako arretarako eredu honetako onuradunak eta, batez be, persona horreek guztiek bizikidetzaren unidateetan antolatutako banakako arretarako eredurako eskubidea daukiela, etxean lez bizi ahal izateko. Milaka lagun bizi bizitza daukagu berbabide, eta ez da nabarmen aldatu behar egoitza-zentro batean sartzen diranean. Euren bizitzeak beste ingurune batean segiduko dau, eta euren etxea izango da. Etxe horretan, hain zuzen be, euren bizi-proiektuari emon ahal izango deusie jarraipena, eta esanguratsua danari eutsi ahal izango deusie bertan.

Ez da erraza izan eredia egituratzea, baina, Murillo jaunak behin baino gehiagotan azaldu deuskunez, zainketetan inplikautako eragileen alkarlanaz eratu da. Egindako lana jentaurrean partekatu da lehenengo biderrez joan dan 2021eko garagarriaren 12an egindako topaketan. Bertan zagozen batzuok topaketa horretan parte hartu zenduen, eta, bertan, entzun egin ahal izan genduan zer ereduaren aldeko apustua egiten dauan Foru Aldundi honek, egoitza-zentroak arautzen dauzan 126/2019 Dekretuaren 24. artikuluan adierazoten zana garatzeko asmotan. 2021eko garagarriaren 27ko Gobernu Kontsejuan, Aldundiak itunean bultzatzeko daukazan tresnetako batean islatu zan eredia. Gobernu Kontseju horretan, Bizkaiko mendekoentzako egoitzen foru-zerbitzugintza ituntzeko deialdia onartu zan. Horixe bera da Bizkaiko bizikidetzaren unidateen lege-esparrua, horixe da esparrua.

Jakin badakigu erakundeei eredia ezarteko laguntza emon jakena prestakuntzearen bitartez. Prestakuntza hori irailean hasi zan, eta, barikuro, urtearen amaierara arte, 2022ko martiaren 1etik aurrera eredu hori ezarteko konpromisoa hartu eben erakunde guztiak alkartu ziran bertan. Bizikidetzaren unidateak aurrerapausu barria dira arretea banakakoa egiteko orduan, eta erantzuna emoten deusio euren bizi-proiektua garatzeko orduan laguntzak behar dabezanen preminen, itxaropenen eta lehentasunen bilakaerari: gure arretea jaso behar daben mendekoak, alegia. Aurrerapausu hori, bultzada hori beharrezkoa da Aldundiaren ikuspegitik, honako lau ikuspuntu honeek kontuan hartuta:

- 1- Behar besteko nabaritasun enpirikoa dago.
- 2- 2019tik gomendatzen dauan arau-esparrua dago.
- 3- Personen gurariak eta itxaropenak.
- 4- Sektoreko eragileen ikuspegia.

Joan dan martiaren 30eko Kontrolerako Osoko Batzarrean, eztabaidagai daukagun mozinoa sorrarazo dauan itaunaren aurrean, Murillo jaunak datu interesgarriak emoten euskuzan bertan bizi diranen profilari buruz, eta antz nahikoa dauka sare orokorrekoagaz. 85,9 urteko batez besteko edadea daukie, sare orokorrean baino nagusiagoak. %64k 85 urte edo gehiago daukiez, sare orokorrean baino nagusiagoak be bai. %95ek 2. edo 3. mailako mendetasun-maila daukie autortuta: %35ek, hain zuzen be, 2. maila; eta %58k, 3. maila, bizikidetzaren unidateetakoak nagusixeagoak be badira. %42k narriadura kognitiboa daukie; eta %36k, oso mobikortasun murriztua. Kasu horretan, beraz, sare orokorrekoen antz-antzeko datuak dira.

Duque andreak aurkeztu dauan eta bere bigarren agerraldi-txandan berak zehetasunez azalduko dauan mozinoaren inguruko zuzenketea aurkeztu dogu Nacionalistas Vascos eta Socialistas Vascos taldeok, eta xumetasunez uste dogu hobeto islatzen dauzala eskatutako ebaluazinoa egiteko erespideak. Campo andreak be azaldu dauz zehetasunak. Duque andreak emon gura deusaguz eskerrak bere prestasunagaitik, gure zuzenketea onartu dau-eta,

eta gainerako taldeei eskatu gura deusegu horren arabera jokatu daie, ekimen hau gaur ateratzen aurrera Gaineraren gehiengoaren babesaz. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lamborena Barreras. Señora Martínez Fernández, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Talde Popularrean, ekimen honen aldeko botoa emongo dogu. Egia da epealdi igarokorrean gogozana, egia da bizikidetzaren unidateen aurrera egiten segidu behar dabilena eta erritmo onean joango dalakoan gogoz. Esan barik doa politika publikoen ebaluazioa erabat beharrezkoa da beti, baita ezinbestekoa be, kasu honeetan. Nik neuk uste dot garrantzitsua dala gero eta arreta handiagoa eta hobea emotea geure edadekoei. Egia da pandemiaren sasoi oso egoera latzak bizi izan dirala, eta uste dot danok ados egongo gara esatean gaur egun danok ingurukoren bat daukagula edadekoak egoitzara erroteko errezeloak daukazan: familia bera edo edadekoa bera be bai.

Uste dot kasu honetan administrazioen edo Aldundiaren handigerea ez dala izan behar euren bizi-kalitateari eustea, bizikidetzaren unidateen euren bizi-kalitateak hobera egitea baino. Bertan, hain zuzen be, gero eta banakakoagoa dan arreta eukiko dabe, eta, zer esanik ez, danok daukaguzan duintasuna eta eskubideak bermatuko dauz. Holan, apurka-apurka egingo dogu aurrera, Serratek inoanez, gero eta zahartzaro erogarriagoa eukiteko aukerea eskaintzen deuskun eredu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández. Señora De Madariaga Martín, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Elkarrekin Bizkaian, arreta bereziaz segidu dogu itaunean sortutako eztabaidea eta eratorritako mozinoari buruz eztabaidatzeko asmotan oraintxe bertan garatu barri da be bai, zainketek kezkatu egiten gaituelako, kezkaean eta ardurapean daukaguzalako. Arreta berezia be jarri dogu, oso maiztuta dagoan bizikidetzaren unidateen ereduaren zehetasunak zein diran jakin gura dogulako. Bere alde onaren inguruko interesa daukagu, uste dogulako tratu gizatiarragoa eskaini ahal deusela gure edadekoei. Dana dala, bere alde txarrena be fiskalizau gura dogu, bere alde iluna, hainbatetan esan dogunez, hau erretorika bihurtzeko arriskua daukagulako edo %5 gehiago bakarrik ordaintzekoa, egoitzen kudeatzaileetara egokitu daitez. Horrez gainera, uste dogu mahai ganean jarri behar dala beste arrisku bat be badaukagula, aurretiaz erreta dagozan profesionalak lanez ganezka egon leitekezalako hau modu egokian arautzen ez bada. Gainera, ezin dogu ahaztu egoitza-sektorearen azken mobilizazioak egoitzetako beharginek jasaten daben ezegonkortasunaren adierazgarri baino gehiago dirala. Benetan, eredu-aldaketa horren pisu guztia euren gain egongo ez dalakoan gogoz. Hori, oro har.

Berabide daukagun gai zehatzari jagokonez, atzo, Osoko Batzar hau eta, zehatz-mehatz, puntu hau prestetan nengoala, sor eta lor geratu nintzan. Ezustekoa halakoa! Beharbada, zaplazteko ederra izango da gaur hemen, eta sentiduten dot. Azaltzen ahaleginduko naz. Joan dan zezeilean, Arartekoak edadekoen egoitzetako Covidari buruz egindako azterlanera jo genduan, proposamen batzuk mahai ganean jarteko asmotan. Koronabirusaren intzidentziari buruzko azterlan zana, baina bere eukiari eta ondorioei erreparata, inguruabar horretatik harago

joian. Bizikidetzaren ereduaren eredu behin baino gehiagotan aitatzten da azterlanean. Eztabaida haren ostean, gure taldeak eratorritako mozinoa aurkeztu ondoren, Osoko Batzar honetan bertan aho batez onartu genduan mahai ganean jarri genduzan kezka batzuk jorratzen ebazan proposamena.

Zezeileko Osoko Batzarrean, oraintxe irakurriko deusuedan haxe onartu zan: “test diagnostikoa egitea, egoitza-unidadeen ereduaren aurrerakuntzea kuantifiketako eta egoitzetan sortutako txostenak biltzeko. Bestetik, Euskadiko Edadekoen Egoitza Zentroei buruzko 126/2019 Dekretua berrikusten danean, ratioen berrikuspena kontuan hartzea”. Azterketa diagnostikoa egiteko onartutako lehenengo proposamenari esker, benetan ebaluauko dogu zer jazoten dan egoitza-eredu barria ezarri gura daben egoitzetan. Horrezaz ganera, ez da zeregin hori zentroaren eskuetan bakarrik ixten, uste dogulako erantzunbeharra izango litzatekeala. Test diagnostiko hori egiteko orduan, item batzuk edo ebaluau beharreko adierazle batzuk eukiko dauzala uste dogu, mozinoari buruzko eztabaidan esan genduan lez. Erabiltzaile-muetak, profil profesionalak, ratioak daukaguz berbabide. Bigarren proposamenak egin beharreko horixe nabarmentzen dau, bizikidetzaren ereduak behar dauan behargina-erabiltzailea proporzinoa aldatu ahal izateko, ganera: erkidego-mailan hori arautzen dauan dekretua, mozino honetan be agertzen dana, alegia.

Laburbilduta, proponiduten genduana, eta onartu egin zan, egoitza-unidadeen ereduaren ezarpenaren kontrola zan, baita horren ondorioz sortutako lan-baldintzen berrikuspena be. Horreetxek dira Parlamentu honen akorduak, eta gaur garatzen gagozan eztabaidea hor barruan dago kokatuta. Gitxienez, hori kontuan hartzea gura neuke. Egoitza-unidadeen ereduaren abioa baloretako txostena egin daitela eskatzen da. Ondo, ederto. Gizarte Ekintzako Batzordean aurkeztu daitela. Ekarpen ona, besteak hori eskatzen ez ebalako. Bigarren puntu honetan, tira, ba, bai, gure ustetan be eredu fiskalizetan da, baina, zeozelan, zalantzan gagoz ez dakigulako egingo ez ei dan zeozer dan. Era berean, eskatu egiten da txostena aurtengo abenduaren amaierarako egon daitela prest. Halanda ze, urtebete be ez da igaroko bizikidetzaren ereduak abian jarri ziranetik, dekretua martian emon zalako argitara.

Itaunaren ondorioz sortutako mozino honetan, gardentasun handiagoa eskatzen da, hau da, oposizionoko talde guztiok egoitza-sektorerako gura doguna, nahi-ta sektoreko patronalek ezin kontrolauago dagozala dinoen. Badakigu opakotasuna oso agirikoa izan dana herritarrentzat, oro har, kargudun publikoentzat, baita familientzat be, eta ez dogu gura opakotasun hori zentroak kudeatzeko eredu barrietara hedatzea. Hain zuzen be, horrexegaitik proponidu genduan mozino ha.

Ekimen honen errazoia gardentasuna da, sektore batean, sektore honetan be bai. Halanda be, badaukagu zalantzarik, ez dakigulako zer barritasun dagoan proponiduten dan horretan, bide batez Aldundiari agindu bi beteteko aukerea emoten jakola albo batera itxita. Onartuta ei dagoan berbera onartuko dogu. Nik neuk ulertu daiket Duque andrea konturatu ez izana, beste gauza batzuk daukaguzalako, baina Gobernuari eusten deusien taldeak ez konturatzeta be! Arraroxeagoa dala uste dot.

Halanda ze, nik neuk bigarren txandan entzun gura neuskizue ezer desbardinik dagoan, zer dan, edo, barriro be, urte honetako bertako zezeilean egin zan zeozeri buruz eztabaidatzen eta onartzen gagozan. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. A continuación, el turno de réplica. Para ello, señora Duque Santacoloma, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Muchas gracias. Hasteko, Eneritzi erantzuteko, gaurko mozinora garoazan ildo nagusia dago egiten joan garan proposamenetan, erantzun-eskeetan eta itaunetan, EH Bildu Bizkaian tesi bat daukagulako. Eredu honek, bizikidetzaren unidateen egoitza-eredu barri honek arretea emon ahal deustoa mendekoen profil zehatz bati, baina gure tesiaren arabera, baleiteke mendeko handientzat ez izatea, zoritxarrez.

Hipotesi, tesi hori baieztu daiten ala ez, informazio zehatza behar dogu. Horrexegaitik, oso zehatzak diran galdera batzuk egiten joan gara Arartekoari. Horrexegaitik eskatu genduan agerraldi hori, eta oso galdera zehatza egin neban. Era berean, Gizarte Ekintzako Sergio Murillo diputaduari be egin neutsazan joandako Kontrolerako Osoko Batzarrean, eta danak norabide berean doaz, konturatzen bazarie. Hau da, zein dan Bizkaiko egoitzetan bizi diranen gaur eguneko profila. Izan be, guk geuk daukagun tesi horren arabera, gaur eguneko profila gero eta konplexuagoa da. Ganera, Ganbera honetan be entzun dogu edadekoen egoitzetan be emoten deusteela arretea dibersidade funtzionala daukienei, desgaituei. Hori dala eta, gaur egun egoitzetan dagozan edadekoen profil horren ondorioz, euren preminak be konplexuagoak dira. Era berean, oraindokarren daukagun tesiaren arabera be, preminak konplexuak daukazan profilari arretea emoteko, beharginen taldeak indartu behar dira, hau da, dekretu hori berrikusi behar da. Izan be, Jane Eyregaz euki doguzan alkarrizketetan, hain zuzen be, zuok, Eneritz, proponidu zenduen akordu hori aitatu neutsan, Egoitzetako Datuei buruzko Dekretua berrikusteko orduan bizikidetzaren unidateen ere du barri hau kontuan hartu eitean ezezagun hori edo guk geuk daukagun tesi hori desegin ahal izateko, hau da, ezinezkoa da personan oinarritutako banakako arretea emotea. Paradigma barri horretan, bat gatoz, esan dodanez, arlo funtzionalagaz, aldaketa arkitektonikoakaz eta filosofiagaz, danok gagoz ados.

Gure eretziz, ostera, ere du hori ezarteko, argi eta garbi dago behargin gehiago behar dirana. Gitxi gorabehera, horixe bera da gaurko mozinora eroan gaituan ildo nagusia. Dana dala, lehenagotik dator, eta uste dogu hemen emon deuskuezan datuek, eta lehen be aitatu dirala uste dot, tesi hori indartzen dabela. Gaur egun bizikidetzaren unidateetan bizi diranen %58k, ia-ia %60k gehieneko mendetasun-mailea daukie, 3. mailea daukie. %42k narriadura kognitiboa daukie, eta %36k mobikortasun-arazoak daukiez.

Berton esan danez, persona guztiek ere du barri hori, modu barri hori, personan oinarritutako ere du hori eskuratzeko eskubidea euki beharko leukie, eta ados gagoz, bat gatoz horregaz. Dinoguna da, mendetasun handia daukien persona horreek euren preminetan oinarritutako arreta-eredu barri hori eskuratzeko aukerea be euki daien, baleitekeala nahikoa ez izatea aldaketa funtzionalak eta arkitektonikoak egitea eta beharginen ratioa aldatu behar izatea, eta horixe bera da legealdia hasi danetik bertan eztabaidagai euki dogun korapilo gordiarra.

Nik neuk Arartekoak inoazan berbak hartu nebazan kontuan, hau da, dan-dana aztertzen dabilzala, sakondu egin beharra dagoala. Hori dala eta, eztabaida hau eta ekimen batzuk dakarguz gaur, eta behar beste biderrez ekarriko doguz barriro. Izan be, barriro dinot. Egoiliarren profila gero eta konplexuagoa danez, zainketa handiagoak behar dauz, eta, horren ondorioz, uste dogu bizikidetzaren unidateen egoitza-eredu hau ebaluatu behar dogula, aldaketa arkitektoniko eta funtzional horreek ratioak aldatu barik egin egin daitekezan jakiteko edo, ostantzean, eta hauxe da guk defendiduten doguna, paradigma aldatzean beharginen taldeak indartu behar diran, azken batean, behargin gehiago behar diran jakiteko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Duque Santacoloma. Señora Campo Prieto, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **CAMPO PRIETO** andreak: Muchas gracias, de nuevo.

De Madariaga andrea, hemen kontua ez da zelan geratzen dan talde bakotxa, nork daroan saria, nork proponiduten dauan zer. Hemen, aurrera egiten segidutea da kontua, eta zenbat eta datu gehiago eta informazio gehiago euki, hobeto. Lehen esan dodanez, helburu bera eukitea da kontua, hau da, aurrera egiten eta aldaketak berme osoz ezarten segidu behar dogu. Neurri bakotxa sendotzeko bermeak. Horrezaz ganera, ebaluatu egin behar da neurrien ezarpenak zelan egiten dauan aurrera, lege-esparrua, baliabideak, zailtasunak eta eraginak ahal danik eta ikuspegi osoenaz kontuan hartuta. Izan be, ez da nahikoa personak erdigunean jarten dauzan arretaren preminea autortzea eta nabarmentzea, behar besteko neurriak hartu behar diralako, euren ondoizatea ahal danik eta gehien bermatzeko. Halanda ze, ebaluazio hau, arinegi egingo litzatekean arren, beharbada, gaur bultzatzea adosten dogun ebaluazioak informazioa emongo dau lortutako onurei buruz, akatsei eta gabeziei buruz, egon balegoz. Gaur, adostasun hau lortu dogu, hobekuntzarako ekarpenak egiteko eta abian dagozan neurrietan sakontzen segiduteko asmotan. Hori dala eta, barriro be, guk adostasunari emongo deusagu balioa, horixe esan ahal badeuskue be. Ez dakit, ba.

Nire taldearen ustetan, adostasunak beharrezkoak dira beti, abian jarten diran neurriak sendotzeko eta aldaketek luzaroan irauteko. Adostasunaren bide honetatik segidu beharko geunke. Ondoetorria personen bizitzea hobetzen dauan neurri bakotxari, azkenean horretarakoxe gogozalako berton. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Campo Prieto. Señor Lamborena Barreras, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LAMBORENA BARRERAS** jaunak: Sí, muchas gracias, de nuevo, señora Presidenta.

Yo también voy a empezar desde el final. De Madariaga andreari erantzun gura deusatu ulertu egiten dogula berak aitatu dauzan akordu biak osogarriak dirala eta bata ez deusala kentzen baliorik besteari. Urtearen amaierako ebaluazioari jagokonez, argitu egin gura dot mahaiburuak horixe bera aitatu dauala, hain zuzen be, lehenengo puntuaren zuzenketan, euskerako esaldian komarik ez dagoanez, emoten ebalako esangurea aldatzen zala. Dana dala, abian dagozan bizikidetzaren unidateak urtearen amaieran ebaluetea da kontua. Ados?

Denporan oso asago joan barik atzera begirako txikitxua barriro egiten badogu, lehen be aitatu dogun 2020ko irailaren amaierako Politika Orokorreko Osoko Batzarrerera bagoaz, danok ahaldun nagusiaren berbetan igarri ahal izan genduan bizikidetzaren unidateak funtsezko elementua izango zizala Bizkaiko mendekoen arretarako sare soziala hobetzeko eta modernizetako. Une horretatik aurrera, egiaztatu egin dogu Gizarte Ekintza Saila lanean hasi dana abian jarri ahal izateko, eta, gaurko egunera ailegauta, Foru Aldundiak 2022. eta 2023. urteetarako zehaztutako helburuak bete egin daitezkezala pentsarazoten deuskuen zenbakiak dagoz.

Tamainu honetako proiektu guztietan lez, helburuak ondo zehaztea baizen garrantzizkoa da azken emoitzea ebaluetea, baliabideak inoiz be ahaztu barik. Ebaluetako prozesuan, funtsezkoa da erabilitako baliabideen egokitasun-mailea eta helburuen lorpen-mailea neurtzen laguntzen deuskuen datuak biltzea. Zentzun horretan, gaurko mozinoa onartzean, Batzar Nagusion kontrolerako zeregina indartuko da neurri handi batean.

Ez neuke neure agerraldia amaitu gura gai bi azpimarratu barik. Lehenengo eta behin, eskerrak emon gura neuskioz Gizarte Ekintza Sailari, baita Sergio Murillo diputadu jaunari be, adostasun hau lortzeko zeregina erraztearren. Bigarrenez, adostasuna bera azpimarratu gura neuke. Garatzeko denporea emon deiogun eredu honi, ebaluetan joan gaitzean

eta apurka-apurka hobetzen joan gaitez. Nahi-ta batzuetan desadostasunak edo erespede desbardinak egon, beti ona da bidean alkarregaz topetea, hain garrantzitsua eta barrizaitailean dan zeozer, hau da, bizikidetzaren-unidadeak, abian jarteko prozesua ebaluetan danean. Apustu horrek, ganera, aldatu egingo dauz, gure Lurralde Historikoko mendeko askok jasoten dabezan zainketak aldatzen dabil. Pozarren gagoz, adostasuna lortu dogulako zuzenketetan, eta, aurreikusitako datan, bildutako datuak behar dan lez aztertu ahal izango doguzalakoan gagoz. Holan, danon artean, Bizkaiko laguntza-sarea hobetzen segidu ahal izango dogu.

Siempre es una muy buena noticia encontrar compañeros/as de viaje. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lamborena Barreras. El Grupo Mixto-Partido Popular no va a tomar parte. Señora De Madariaga Martín, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Duque andrea, ezer baino lehen, nik neuk ez dot zure lana kolokan jarten, otu be ez jat egiten, bene-benetan errespetetan dot, zainketen arloan, batez be. Ez litxakit holakorik egiterik otuko, arabere gitxiago, atril honetan, hau da, ez nabil horri buruz berbetan.

Gaur mahai honen ganean jarten nagoana Gobernuaren adar-jotea dala uste dot, nire taldeari adarra jotea eta zureari adarra jotea. Horixe bera da berton salatzen nabilena. Mahai ganean jarten zagozan teoria be ez dot kolokan jarten, eta oinarri teorikoa eta egiazkoa daukala uste dot nik. Hori holan dan ala ez ikertu beharko litzateke, erabat logikoa da eta gure babes guztia daukazu hor, baina ez nabil horri buruz berbetan. Ni neu esaten nabilena da uste dogula honen bidez Gobernu adarra josten jabilkula eta ez dala nire taldera bakarrik mugatzen. Horregaitik, Campo andreari esan gura neutsan: “hau ez da sari-kontua, gero!”. Ez, ez, ez da sari-kontua, ez erratu, kontua ez da nork lortzen dauan garaipena. Kontua da Duque andreari esaten nenbilkiona. Kontua da, nire ikuspegitik, danoi adarra josten deuskuela. Hau da, esan gura dot, zuon esanetan, datuak gura dozuez, ebaluau, abian dagozan bizikidetzaren-unidadeak ebaluau gura dozuez. Hain zuzen be, horixe bera da zezeilean onartu zana. Horixe, ez besterik. Halanda ze, oraindokarren ez da garatu, eta horretan, bai, errazoa emongo deusut, zein diran zuok oso argi jarten dozuezan ebaluazino-adierazleak. Dana dala, badinot nik test diagnostikoren bat egiten zoazenean, tira, ba, adierazleren bat hartuko dozuela kontuan. Ganera, mozinoaren defentsan proponidu jatzuezan adierazle hareek kontuan hartuko dozuezalakoan nago, ez gehiago ez gitxiago, ahal dala.

Halanda ze, zeozelan, agirikoa danez, ez dot erabat ados nagoan zeozeren aurka egingo. Agirikoa da. Dana dala, adarra jo ez deiguela. Horixe baino ez dot eskatzen. Hau onartuta dago, gure gustukoa izan nahiz izan ez, errazoi baterako edo beste baterako, baina zezeilean onartu egin zen testa edo ebaluazinoa edo ebaluazino-txostena egingo zala, eta bizikidetzaren-unidadeak abian jarteko prozesua eta euren eragina ebaluetako onartu zan, hain zuzen be. Halanda ze, tira, bi biderrez onartu daikegu berbera, ez dago ezelako arazorik, baina ez guri adarrik jo, gero!, horixe baino ez deusuegu eskatzen. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. Una vez concluido el debate, vamos a someter a votación la moción, incluyendo, como se ha comentado, la enmienda aceptada.

Votemos. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? ¿Abstenciones?

El resultado es el siguiente:

Se han emitido 47 votos en total. Ha habido 42 votos a favor, ningún voto en contra y 5 abstenciones. Por tanto, aprobada la moción.

Punto séptimo del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma ([R.E.11/E/2022/0000201](#))

Autor: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Asunto: Plan Foral de Salud Mental.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2022/0000201](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (182A), [Enmiendas: No presentadas](#) (182B)

Expediente: ([11/B/26/0003128](#))

7.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena ([11/E/2022/0000201SE](#))

Egilea: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Gaia: Osasun Mentalari buruzko Foru Plana

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000201SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (182A), [Zuzenketa-eskeak: Ez dagoz](#) (182B)

Espedientea: ([11/B/26/0003128](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora De Madariaga Martín, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, de nuevo, señora Presidenta.

Eztabaidatzeko eta, ostean, bozkatzeko proposamena dakargu, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenen esparruan eta inplikautako generako instituzino publikoen koordinazinoan, Osasun Mentalerako Foru Plana diseinatu eta abian jarri daian eta, holan, baldintzatzaile sozialek biztanleen artean daukien eragina murriztu daiten. Horrezaz ganera, uste dot, proposamen hau behar dan lez ulertu ahal izateko, gai batzuk azaldu behar doguzala alde zurretik. Batetik, zergaitik behar dogu Osasun Mentalerako Foru Plana? Bigarrenez, zer esan gura dau baldintzatzaile sozialen eragina murrizteak? Zergaitik koordinatu behar da plan hau beste instituzino batzukaz?

Osasun Mentalerako Foru Planaren zergaitiari buruzko lehenengo galdereari erantzuteko, gai batzuk nabarmendu gura neukez. Batetik, bigarren mailako arretarako osasun zein gizarte zerbitzuak eta zerbitzu sozialak horniduteko eta emoteko eskumena daukagulako eta, hor, osasun mentaleko arazoak daukiezanak dagozalako sartuta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Legearen arabera. Hau da, eskudunak gara arlo horretan, nahi-ta, nire agerraldian ikusiko dozuenez, Aldundiari ez deusagun arreta-sarea hobetzeko erantzuna bakarrik eskatzen. Era berean, arautegia egiteko orduan eskudunak garanez, Foru Plana izan behar dala defendiduteko oinarritzat joko doguzan beste eskumenetako bat da hau.

Osasun Mentalerako Foru Plana behar dogu, bestetik, pandemiaren ondorioz osasun mentaleko arazoak larriagotu diralako. Azken urte biotan argitara emon diran hainbat azterlan dagoz gai horri buruz, eta, bertan, Covid-19aren Liburu Zurian azaltzen diran lako gaiak islatzen dira, berbarako. “Egindako azterketen arabera”, dino Liburu Zuri honek, “egindako azterketen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan gaur eguneko pandemiak ekarri dauzan estres, antsiedade eta depresino mailak hazi eta hazi egin dira biztanle orokorren artean, denporeak aurrera egin dauan neurrian. Pandemiaren hasieran, antsiedadearen, depresinoaren esparruko sintomatologia, berbarako, ez zan beste herrialde batzuetan eukiezan tasa handi-handietara ailegetan. Edozelan be, pandemiaren egoera luzatu egin danez, antsiedadearen, depresinoaren edo trauma osteko estresaren eta doluen eragina apurka-apurka handitu da, biztanle orokorren zat latzak izan daitekezala kontuan hartuta, beste sintoma batzuen artean. Pairamen psikologikoak gehien kaltetutakoak”, txosten honek dinoanez, biztanle orokorren artean, “gaixotasun kronikoak daukiezan 18-25 urteko andrak dira. Krisi hau estresera eta erresilientzia-gaitasunera egokitzeko mekanismoetarako erronkea da biztanle orokorren zat eta, bestetik, batez be, zaurgarriagoak diran giza talde batzuentzat. Asko eta asko dira pandemiaren ondorio psikologikoak jasan dabean giza taldeak, eta, une batzuetan, euren buruaz beste be egin dabe horregaitik”.

Egoera horren ondorioz, pandemiaren aurretik egon baegoan presinoa areagotu da osasun mentaleko arazoak daukiezanentzako arreta-zerbitzuetan. Azken batean, Foru Plan hau beharrezkoa da, agirikoa baino agirikoagoa dan premina soziala dagoalako, eta, aldi berean, premina horretara hurreratu, arretea emon eta instituzino eskudunen erantzuna eskaini beharra dago.

Bigarren gai garrantzitsua sartu dot ekimen honetan, eta oso garrantzitsua da ezagutzea, bertan datzalako proposamen honen mamina, hau da, zer diran berbabide daukaguzan baldintzatzaile sozial horreek eta zergaitik proponiduten dogun baldintzatzaile sozialak murriztea izatea planaren helburua. OMEk azaldutakoaren arabera, personak jaio, hazi, lan egin, bizi eta zahartzen diraneko inguruabarrak dira osasunaren baldintzatzaile sozialak, eguneroko bizi-baldintzetan eragina daukien indarren eta sistemen moltso zabalagoa barne. OMEk osasunaren baldintzatzaile sozialen inguruan egiten dauan sailkapenaren arabera, testuinguru sozioekonomiko eta politikoa euretako bat da, egiturazko eta posizino sozioekonomikoaren arloko baldintzatzaileak beste bat dira eta bitarteko faktoreak osasunaren faktore baldintzatzaileak dira. Faktore horreek eragin handia daukie egitura sozialean eta gizarteko poderearen zein baliabideen banaketan, eta, gai honetan, Foru Aldundiak zer esan ugari dauka, zerga-politiken edo politika sozialen edo babes-politiken garapenaren bidez, berbarako.

Desbardintasuna biztanleen osasunaren baldintzatzaile handienetakoa da, osasun mentalarena, batez be. Zenbat eta handiagoa izan desbardintasuna, orduan eta handiagoa da osasun mentaleko arazoaren prebalentzia. Horrezaz ganera, diru-sarreraren desbardintasuna faktore erabagigarria da gizartearen osasun mentala zehazteko orduan. Txirotasunak, hain zuzen be, honako hauxe eskuratzea eragozten deutse personei: bizitza duina, hezkuntzea, garraioa be eta gizartean bete-betean parte hartzeko nahitaezkoak diran beste faktore batzuk. Bizitza sozialetik baztertuta egotean, osasun txarragoa sortzen da, eta arrisku handiagoak dagoz. Lanbakoek, gitxiengo etnikoek, behargin migratzaileek, desgaituek, igeslariek, etxebakoek esposizino handiagoa daukie txirotasunaren aurrean, eta, horregaitik, osasun-arazo larriak euki daikiez. Alde horretatik, OMEren gomendioak hartu behar dira kontuan, eta, bertan adierazoten dauanez, ezinbestekoa da zentzun horretan politika sozialek genero-ikuspegia kontuan hartzea, osasunaren egiturazko iturri baldintzatzailea ei dalako. Horrezaz ganera, bere esanetan, andren osasun-kostuak gizonenak baino handiagoak dira, andrek gizonen baino arrisku handiagoa daukielako txiroak, lanbakoak izateko edo lan ezegonkorretan kontratauta egoteko.

Ikusten dozuenez, zerbitzuak ezeze, baina horreetxek be bai, honako hauxe be badaukagu berbabide: Foru Instituzinoan garatzen doguzan politikak eta zelako eragina be badaukien personen bizi-baldintzetan, osasun mentalean eragin zuzena daukiela kontuan hartuta.

Hirugarrenez eta azkenik, esan dodanez, proponiduten dogun neurria ulertu ahal izateko, ulertu egin behar da zergaitik proponiduten dogun plana ganerako instituzinoen koordinazinopean egitea. Koordinazinopeko lanerako proposamen hori gai bigaitik sortu da. Lehenengo eta behin, zeozelako erantzuna emoten deutso osasun mentalaren arloko eskumenen banaketeari. Halanda ze, guretzat beharrezkoa da eskumena daukien maila instituzional guztiek euren eskumenen esparrutik aztertzea egoerea. Bigarrenez, uste dogulako baldintzatzaile sozialak benetan jorratu gura badoguz, Aldundi honen zeregin eksklusiboa ez dala, zeharkako neurrien bidez koordinauta landu behar da-eta. Covidaren pandemiaren hasieratik, gure bizitzan, ziurbakotasuna, etorkizunaren inguruko ikarea, hurrengo urteetarako aurreikuspen faltea dira nagusi, eta, horrezaz ganera, gatazka belikoaren gaur egungo egoerea eta bere ondorioak hartu behar dira kontuan. Arazoa da, eta egoerea latza da. OMEk horri buruzko adierazpenak egin dauz, eta, bere esanetan, presino sozioekonomiko iraunkorrek oso arrisku ezaguna dira personen zein erkidegoen osasun mentalerako.

Proponidu egiten deusuegu Instituzino honek osasun mentaleko arazoak jorratzea laguntzearen ikuspegitik, abian dagoan arren hobetu egin daiteke-eta, baina prebentzioaren ikuspegitik be bai, oso garrantzitsua be badalako gai hori indartzea Aldundiak sortutako politika publikoen euren bitartez. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martín. Señora Martínez Fernández, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Agirikoa danez, gai hau beste instituzino batzukaz jorratu behar da. Izan be, gai honek hainbat eta hainbat arlo barruan hartzen dauzanez, Foru Gobernuak daukazan eskumenetara bakarrik mugatzen bagara, uste dot nahikoa urri geratuko litzatekeala.

Zer esanik ez, uste dot osasun mentalaren gaia danok, gizarteak, estigmatizau dogun gaia izan dala. Edozein gaixotasunek bere diagnostikoa, bere tratamentua euki leikean arren eta, oro har, ardura handiegi barik partekatuko litzatekean arren, egia da osasun mentalaren gaia estigmatizauta egon dana, hau da, psikologoarenera joatea, psikiatrarenera joatea edo osasun mentalaren arloko edozein aditurenara joatea ez zan normalizauta geunkan zeozer, bada.

Uste dot pandemiaren ondorioz be, besteak beste, konturatu egin garala osasun mentala biztanleen ehuneko zehatz batek daukan arazoa dala, hain zuzen be, beste edozein osasun-arazo euki daikean lez. Halanda ze, holantxe diagnostikau behar da, holantxe tratau behar da eta uste dot gizarteak emon dauan aurrerapausu handia izan dala hori.

Egia esan, pandemiaren ondorioz askoz zehetasun handiagoz be tratau diran datuak begiratzen badoguz, ikusi egiten dogu lehen egunean Osasun Ministerioak esan ebala 2020ko zemenditik 2021ekora arte bakarrik, 12 hilebetean bakarrik, %4 igon zala antsiolitikoaren preskripzinoa; %6, depresinoaren kontrakoena; eta %4, psikoleptikoena. Ganera, espainiarren %20,6k ustezko depresino-kasuakaz bateragarriak diran sintomak daukiez. Egia da danok txostenak ikusi ahal izan doguzana, eta, bertan, lehenengoen artean dago Espainia. Uste

dot munduko sailkapeneko 10. postuan dagoala depresinoaren kontrako kontsumoan, eta barriri dinot gai hau jorratzen joan behar dala eta gai horretan aurrera egiten joan behar gara.

Zer esanik ez, zer hobetu ugari dago, eta horrexegaitik dinot ezinbestekoa izango dala beste administrazio publiko batzuk alkarreragina eukitea. Izan be, agirikoa danez, uste dot Euskadiko osasun publikoan eta Espainia osokoa agiriko defizita dagoala psikologo kopuruari jagokonez, psikiatren kopuruari jagokonez, biztanleko ratioei jagokonez. Zer esanik ez, bigarren bisitaldiei jagokonez be bai, edo hirugarren bisitaldiei jagokonez be bai, tira, ba, denporak lar luzatzen diralako. Osasun Mentalaren Konfederazioaren txostenean ezarten dabilzanaren arabera edo pandemian be igarri dabenaren arabera, ezinbestekoa da, eta uste dot holantxe amaitu dauala De Madariaga andreak, beharrezko inbersinoan eta baliabideen zuzkiduran, hain zuzen be, oinarrizkoa dan prebentzioaren lerroari lehentasuna emoten ahalegintzea, osasun mentala hobetzea eta goiz igartea eta goiz tratetea. Horrezaz guztiaz ganera, osasun mentaleko profesional adituen ratioak gehitu behar dira.

Hori dala eta, uste dot, Foru Gobernuak, bere eskumenen esparrutik, Eusko Jaurlaritzek eta ganerako administrazioek danen artean lan egiten segidu behar dabela y baliabide publiko gehiago zuzkitu behar dabezala. Zer esanik ez, gizartean bertan be segidu beharra dago lanean, hau ezelako estigma izan ez daiten eta osasun-arazoa izan daiten, gutako edonork euki daiketan beste edozein lez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández. Señora Gil Llanos, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenas tardes a todos/as.

Arauz Besteko Proposamen honetako zioen azalpenean ondo adierazoten danez, bizi izan dogun pandemia-sasioaren eta, bere eskutik, konfinamentuko zein murrizketetako sasoiaren ondorioz, osasun mentalagaz lotutako nahasmenduek, antsiedadeak, depresinoak, estresak, gora egin dabe nabarmen, baina, batez be, errenta gitxieneko personen, andren eta gazteen artean. Hori dala eta, gai horren inguruko sentsibilizazio handiagoa dago, eta, beharbada, lehenengo biderrez, lehentasunez agertzen da agenda politikoan. Hor ostenduta eta isilduta egoan errealdadea zan, eta indarrez azaleratu da eztabaida publikoan, esan deusuedanez, pandemiaren ondorioz, baina, era berean, diputadu batek Diputaduen Kongresuan tamalez esan eban zeozergaitik, gai horri buruz berba egiten egozanean, hain zuzen be, honako hauxe arpegiratu eutsalako Errejón jaunari: “zoaz medikuarenera”. Holan, argi geratu zan diputadu hori edukazino txarrekoa zana eta, horrezaz ganera, arazo horren inguruko ezelako sentsibilidaderik ez eukana, gero eta herritar gehiagok pairatzen dabela kontuan hartuta. Orain, barriz, azkenean, hementxe dago eztabaida politikoan, eta preminaz zein erabagitasunez jokatu beharra dago, instituzino guztiak inplikau behar dira eta arlo horretako politikak indartu behar dira esparru publikotik.

Hara, Osasunaren Mundu Erakundeak azaltzen dauanez, erabateko ondoizate fisiko, mental eta sozialeko egoerea da osasun mentala, eta ez bakarrik gaxik edo gaixotasunik ez eukitea. Hau da, osasun mentala personen osasunaren eta ondoizatearen osagai integrala da. Arabere gehiago esango neuke nik. Osasun mental barik, ez dago osasunik, beste barik. OMEk berak aspaldi adierazo euskun, gauzak zelan doazan ikusita, 2030. urterako nahasmendu mentalak desgaitasunaren lehenengo errazoa izango dirala munduan. Horregaitik, akabo berberdiak, eta sozialistok holantxe adierazo dogu gobernetan dogun leku guztietan, baita oposizinoan bertan be. Gure eretxiz, personen ondoizate emozionala, psikologikoa eta soziala sustatzea herrialde-lehentasuna da. Lehentasuna dala benetan uste badogu, hasteko, geure

osasun mentaleko sarea egokitu behar dogu laguntza-eredu bateratu eta integralaren alde eta eredu hori koordinatuta egon behar da programen zein zuzkiduren artean, batetik, eta osasun mentaleko sareen zein gizarte eta osasun arloko sistemen artean, bestetik.

Horrexetan gabiltz lanean, bai Espainia osoan, bai hemen, Euskadin. Zuk, De Madariaga andrea, badakizu hori edo jakin egin beharko zeunke, Osasun Mentalerako Estrategia Nazionala onartu barri dalako Espainian eta, Euskadin, joan dan apirilaren 4an, sailburuak iragarri ebalako Osasun Mentalerako Euskal Estrategia eguneratuko zala azaldu barri dodazan kakoetan eta zeharkako ikuspegi integraletik. Izan be, osasun mentala, ondo baino hobeto egiaztau danez, hainbat faktore sozial, psikologiko eta biologikoren baldintzapean dago. Badago nabaritasunik honako honeetxek, besteak beste, osasun mentaleko arazoan gorakadeagaz lotuta dagozan errazoiak eta arriskuak dirala adierazoten dauanik: langabezia; laneko ezegonkortasuna; estresa eta ziurbakotasuna; genero-desbardintasunak; familia, bizitza personala eta lana bateragarri egiteko zailtasunak; aisialdi faltea. Halanda ze, beharrezkoa zan eta da geure jarduketetan genero-ikuspegia zein dibersidadearen artea kontuan hartzea, osasun mentaleko arazoak daukiezanen autonomia bermatzea, sentsibilizaziorako zein prebentziorako politikak nahiz jarduketak koordinatzea. Politika horreek, ganera, eta jakin be egin beharko zeunke, De Madariaga andrea, Eusko Jaurlaritzeari jagokoz gure erkidegoan, bere eskumenekoak dira-eta.

Egia da herrialde-erronkea dirana, eta egia da horregaitik instituzinoen arteko alkarlana funtsezkoa dana, baina bakotxa bere eskumenen esparrutik, batzeko eta txarto ez bideratzeko. Berbarako, era bateko eta besteko osasun-planen zehaztapena eta lidergoa Eusko Jaurlaritzearen esku dagoz, hau da, osasun-politikearen lehenetsunak zehazten dauz, eta gizarte zein osasun arloko koordinazioa be zuzendu behar dau funtsezkoa dalako arlo honetan, lehen esan dodanez. Aldundiek, barriz, Zorroari buruzko Dekretuan arautzen dan lez, prebentzinoa eta giza talde zaurgarrienen nahiz euren ingurune hurbilenaren bizi-kalidadearen hobekuntzea daukie ardurapean, atsedenerako programen, eguneko arretarako zentroen eta, Zorroari buruzko Dekretuan azaltzen diranez, zuk ezagutzen dozuzan beste prestazino batzuen bidez. Hau da, ahaleginak, jarduketak eta politikak batzen doguz helburu bererako, baina modu antolatuan. Hortik aurrera, esan egin behar deusut, nahi-ta zuok lez, eta ezin da beste era batera izan, agirian jarteko eta ez estigmatizetako, modu integralean prebeniduteko eta jokatzeko premineagaz ados gagozan, politikak zeharkako ikuspegitik zehaztu eta abian jarri behar dirala kontuan hartuta, ezin garala zuon proposamenagaz ados egon, Osasun Mentalerako Foru Plana egiteko eskatzen deuskuzuelako eta horretarako eskumen-dimentsinorik ez daukagulako. Halanda be, horrek ez dau esan gura ezer egiten ez dogunik, egin egiten dogulako, hain zuzen be. Lehen egin egiten dogula aitatu deusudanaz gain, beste jarduketa batzuk be egiten doguz instituzino honen eta autonomikoaren artean osasun mentalerako sinatutako hitzarmenak lako tresna ahaltsuen bidez eta gure gizarte-zerbitzuen eta Gobernuko osasun-zerbitzuen artean koordinetako protokoloen sinadurearen bidez. Arlo horretan, Adin Txikikoak Programan, Osakidetzarako sarbide zuzena daukan programan, osasun mentaleko arazoak daukiezan tutoretzapeko edadebakoei emondako artea da adibide adierazgarria.

Halanda ze, sozialistok uste dogu arazo honi tratamendu egokia emon behar jakola eskumen-esparru bakotxean, 2021-2024ko Gizarte eta Osasun Estrategiaren hedapenaren arabera. Bertan, hain zuzen be, aitatu egiten da foru-eskumeneko zentroetan eta zerbitzuetan artea jasoten dabenen osasun mentalaren zainketea inplikautako ganerako instituzinoen koordinaziopean bermatzea osasun mentala jagotea dala.

Amaitzeko, beste hausnarketa bat, eta bat dator OMEk dinoskunagaz. Osasun mentalaren baldintzatzaile sozialen inguruan lan egiteko orduan, txirotasunaren aurka burukatu behar gara, lan-ezegonkortasunaren aurka eta giro-ingurune atseginaren alde, eta horixe bera da sozialistok egunero-egunero egiten doguna gure partaidetzea daukien edo gobernetan doguzan instituzinoetan, baita Foru Gobernu honetan be. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gil Llanos. Señora Urkaregi Etxepare, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días, de nuevo.

La pandemia del Covid-19 ha puesto patas arriba nuestras vidas. Hemos comentado en muchas ocasiones que la pandemia del Covid-19 evidenció la necesidad de situar los cuidados en el centro.

Cuando hablamos de cuidados, muchas veces pensamos en los cuidados de los/as otros/as, pero también debemos enmarcar ahí el autocuidado. El autocuidado, la necesidad de cuidar la salud de uno/a mismo/a.

La pandemia del Covid-19 nos obligó a afrontar retos estresantes y terribles. Los/as adultos/as y los/as niños/as tuvimos que hacer frente a fuertes emociones, al estrés, al aislamiento y a la soledad.

Es sabido que puede causar estrés, pánico, enfado, tristeza, sentimientos de frustración, que puede reducir la concentración y la capacidad de dormir. Que puede agravar los problemas de salud crónicos y las condiciones de salud mental o que puede provocar un consumo excesivo de tabaco, alcohol y otro tipo de sustancias.

Durante la pandemia del Covid-19, todos/as hemos sentido cierto estrés, ansiedad, pesar o preocupación. Los/as niños/as y los/as jóvenes especialmente han corrido y corren el riesgo de padecer síntomas de ansiedad.

Según una investigación en la que han participado 1.143 padres/madres de niños/as de entre 3 y 18 años de Italia y España, durante la cuarentena han notado un notable cambio emocional y de comportamiento en los/as niños/as. Los síntomas han sido los siguientes, especialmente:

- Falta de concentración, $\frac{3}{4}$.
- Aburrimiento, más de la mitad.
- Irritabilidad, también un 40%.
- Inquietud.
- Nerviosismo, %40
- Soledad o preocupaciones, en torno a un 30%.

Sin lugar a dudas, la pandemia ha evidenciado que la atención de la salud mental debe ser prioritaria. Reflejo de ello, por ejemplo, son los intentos de suicidio que se están llevando a cabo, así como las muertes que causa. Según los datos del año pasado, en la CAE ha habido 187 suicidios, lo que supone un 27% más que hace dos años. Asimismo, las solicitudes de consulta relativas a la salud mental han aumentado un 13%.

Muchos de los servicios están saturados debido a trastornos vinculados a la salud mental. También se han duplicado los trastornos alimentarios, o también se han duplicado los casos de depresión y ansiedad.

Ya sabemos que la responsabilidad principal para abordar esa cuestión recae en Osakidetza, sí. Sin embargo, eso no significa que distintas instituciones, entre ellas, la Diputación Foral de Bizkaia, no puedan hacer nada.

Aitatu danez, joan dan apirilaren 4an, Osasuneko sailburua dan Gotzone Sagarduik Osasun Mentalerako Estrategia barria iragarri eban pandemiaren osteko arorako. Oraindokarren estrategia hori ez da ezaguna, diseinatu barik dago, baina Osasuneko sailburuak adierazo egin eban neska-mutilentzako eta nerabeentzako arretari emongo deusala lehentasuna. Izan be, jakin badakie depresinoko, antsiedadeko edo elikadura-nahasmenduko arazoak larriagotu egin dirala Covid-19aren pandemiaren ondorioz, eta eragin berezia daukie giza talde gazteenean.

Osakidetzaren erantzunbeharra da estrategia hori egitea, bai, baina, ezelako zalantza barik, era bateko eta besteko instituzino guztiak inplikau behar dira; aldundiak, besteak beste. Bizkaiko Aldundiak edadebakoen arretarako sarea dauka. Zelako eragina euki dau pandemiak edadebako horreen artean? Zer neurri hartuko dauz Bizkaiko Aldundiak osasun mentaleko arazoak artatzeko, kasu batzuetan egon baegozala eta larriagotu egin dirala edo pandemiaren ondorioz barriak sortu dirala eta aurre egin behar jakela kontuan hartuta? Badago programarik, bai, baina programa hori nahikoa da, aldatu egin behar da, eraldatu egin behar da, gehiago inbertidu behar da?

Tira, gure ustetan, holako neurriak, esaterako, Osakidetzagaz batera diseinatu beharko diranak, Arauz Besteko Proposamenean proponiduten dan Osasun Mentalerako Foru Plan horren parte izan daitezke.

Hoy en día, la Diputación Foral de Bizkaia sí dispone de servicios destinados a las personas con problemas vinculados a la salud mental. También se ha comentado que en el apartado 46.2. de la Ley de Servicios Sociales se contempla, entre los colectivos que especialmente pueden ser tratados en el ámbito de la atención sociosanitaria, a personas con problemas de salud mental, a personas con una enfermedad mental grave crónica y a personas con problemas de drogodependencia, especialmente. Dichos servicios son prestados por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, que son de su competencia y para los que se firmó un convenio con el Gobierno Vasco. Por cierto, dicho convenio finaliza este año. Por tanto, es una buena opción para tomar en consideración todas estas modificaciones realizadas.

Conforme al convenio, se debían establecer 435 plazas en centros de día o 348 plazas en viviendas o residencias para atender a esos colectivos. Aunque no se establecieron todas, se equipararon bastante, pero ¿ahora son suficientes en la situación actual? Eso es lo que se debe analizar.

Aún hay más, porque en el ámbito de la inclusión sí existen programas y servicios específicos destinados a personas con problemas vinculados a la salud mental. Por tanto, la Diputación Foral de Bizkaia sí tiene algo que decir sobre los servicios vinculados a la salud mental, pero no solo, como se ha mencionado, para establecer el servicio, sino también las medidas de prevención, etc.

La Proposición No de Norma plantea el diseño y la puesta en marcha del Plan Foral de Salud Mental “en el ámbito de sus competencias y en coordinación con el resto de instituciones implicadas”, es decir, se admite que no es una competencia exclusiva, que requiere colaboración y que se deben respetar las competencias.

¿Que el nombre “Plan Foral” no es apropiado? Quizá sí pueda modificarse, existía la posibilidad de plantear enmiendas, pero, a nuestro parecer, lo que resulta necesario y lo que todos/as los/as que hemos intervenido hasta el momento estamos planteando es que

debemos adoptar medidas concretas para afrontar los problemas vinculados a la salud mental que han surgido y se han agravado debido a la pandemia del Covid-19. Por ese motivo, nosotros/as vamos a apoyar esta Proposición No de Norma. Creo que no debemos entrar, no sé cómo expresarlo, en una cuestión de nombre. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Por último, señora Inoriza Bustamante, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **INORIZA BUSTAMANTE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Osasun Mentalerako Foru Plana diseinetako eta abian jarteko prozesuari buruz eztabaidatzeko asmotan Elkarrekin Bizkaia taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamenari jagokonez, Nacionalistas Vascos taldekook proposamenari buruz eztabaidatzeko orduan garrantzitsutzat jotzen doguzan faktore batzuk azpimarratu gura doguz.

Talde sozialistako ordezkariak adierazo dauan lez, batetik, Osasunaren Mundu Erakundeak azaldu egiten dau erabateko ondoizate fisiko, mental eta sozialeko egoera dala osasun mentala, eta ez bakarrik gatzik edo gaixotasunik ez eukitea. Edozelan be, zenbat bider esan daikegu erabateko ondoizate fisiko, mental eta soziala daukagula? Definizio hori musturreraino eroan ezker, ondorio moduan bakarrik atera daikegu ia-ia danok eta ia-ia beti gaixorik gagozala edo osasun onik ez daukagula, eta alde horretatik bakarrik azaltzen da azken aspaldion arazo emozionalak gaixotasun mentalagaz parekatzeko joera daukien ideak igortea. Zentzun horretan, nahasmendu mentalakaz ezelako zerikusirik ez daukien fenomenoak psikiatrizatuko arriskua sortzen da, baieztapen horreek eguneroko bizitzako ondoeza igoten dabelako gaixotasun mentalaren mailara.

Hain zuzen be, ondoez emozionala eta gaixotasun mentala parekatzen dauan ikuspegi hori da zuon Arauz Besteko Proposamenaren justifikazioari argia emoten deusana, baldintzatzaile sozialen inguruan lan egingo dauan plana proponiduten danean; esate baterako, fiskalitatea, txirotasunaren aurkako mekanismoak, ingurune erkidean arreta espezializaua jasoteko zerbitzuak, lan-ingurune arriskuen prebentzioa, bateragarritasunerako politikak, etxebizitza eta abar luze bat.

Zuon proposamenaren justifikazioaren hasieran, ganera, adierazo egiten dozue, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako azterlan batzuen arabera, pandemia-egoerearen iraupena luzatu egin danez, osasun mentalagaz zerikusia daukien nahasmenduen intzidentziak gora egin dauala apurka-apurka; esate baterako, antsiedadea, depresioa edo trauma osteko estresaren sintomatologia. Hori Covidaren Liburu Zuria izeneko agiriaren 33. orrialdean agertzen da, talde pribadu baten laguntzaz Unibersidade Konplutentsean egindako azterlanagaz dauka zerikusia eta bertan ez da Euskadiri buruzko daturik agertzen. Horrezaz ganera, ondorio horreek oso eztabaidagarriak dira, ez diralako biztanle klinikoei buruzkoak, biztanle orokorrei buruzkoak baino.

Hori esanda, uste dot beharrezkoa dala eztabaidea funtsezkoan, hau da, gaixotasun mentalean oinarriatzea, baina, batez be, arlo sanitarioko eta arlo sozialeko baliabide gehien behar dabezan nahasmendu larrienen. Hain zuzen be, Bizkaiko Foru Aldundiak hortxe dauka zeresan nabari-nabaria, eta herritarren arretarako zerbitzu zuzen eta adostasunetan zehazten da. Alde horretatik, Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko bagilaren 26ko 8/1997 Legeak bere sasoian eratu eban funtsezko tresnea, babeserako eta osasunaren zainketarako eskubideari jagokonez euskal podere publikoek herritarrakaz hartzen daben konpromisoa egituratzeko.

Lege horretan, osasun-arazoei emondako osasun-erantzunaren kontzeptzino integrala proponiduten da, era bateko eta besteko gatxen edo patologien arteko bereizketan sartu barik eta Osasun Sistema Nazionalaren oinarritzko antolamenduaren arabera banakako osasun-prestazinoak bermatuta. Alde horretatik, Euskadiko alkarren segidako osasun-planak, baita osasun mentalerako estrategia edo suizidioaren prebentziorako estrategia be, izan dira gaixotasun mentalaren politiken aldean osasun-politikearen lehentasunak zehaztu dabezan tresnak.

Ganera, zuzenean lotzen gaituan osasun-arlotik harago, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazinoen eta zerbitzuen katalogoan, honako honeetxek sartzen dira gizarte eta osasun arretaren esparruan berariaz artatuak izan daitekezan giza taldeen artean: osasun mentaleko arazoak daukiezanak eta, batez be, kronifikautako gaixotasun mental larria daukienak eta droga-menpetasuneko arazoak daukiezanak.

Izan be, Eusko Jaurlaritzeak, hiru foru-aldundiek eta Eudelek gizarte eta osasun arloan abian jarritako lerro estrategikoetan lehentasunezko jomuga diran giza taldeetako bat dira gaixotasun mentala daukienak. Adostasun horreen esparruan, berbarako, Bizkaiko Foru Aldundiak gaixo mentalen arretarako 38 plaza barri edegi dauz azken urte biotan. Bestetik, Osasun Sailaren ekimenez, orain dala hilebete batzuetatik osasun mentaleko lau baliabide sortu barri dagoz Bizkaian edadebakoentzat eta gazteentzat, Bilbon eta Galdakaon, hain zuzen be. Halanda ze, Euskadiko eta Bizkaiko herritarren osasun mentalaren arretea bermatuta dago eskubideei nahiz baliabideei begira.

Hori dala eta, ez dogu egokitzen jotzen ABP hau onartzea, eta, bigarren txandan, garrantzitsuagoak diran alderdi batzuk zehaztuko dodaz. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Inoriza Bustamante. A continuación, el turno de réplica. Para ello, señora De Madariaga Martín, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, gaur niretzat gauza bi dira pozgarriak eztabaida honen ostean: diagnostikoagaz, behintzat, ados gagozala, jazoten dan egoerea dala eta larria dala eta neurriak hartzeko premineagaz, behintzat, bat gatozala. Nahi-ta talde batzuok garrantzi handiagoa emoten deutsegun hartu diran, garatzen dagozan neurriei eta beste batzuok oraindokarren zer egin ugari dagoala uste dogun.

Halanda be, ez dakit, Gil andrea, niretzat ez da onargarria esatea zuk honako hauxe azpimarratzen dozula: “egin egin behar dogu, instituzino guztiok inplikau behar gara”. Oso garrantzizkoa da egitea, egoerea larria dalako. Ez daukagu eskumenik, baina egiten gabilz. Nik neuk ez deutsut oraindokarren ondo ulertzen: edo badaukagu eskumenik edo ez daukagu, eta, eskumenik ez badaukagu, ez dakit zertan gabilzan egiten. Halanda ze, horixe bera da ulertu ez deutsudana.

Gero, baldintzatzaile sozialei jagokenez, egia dalako zerbitzuen atalean araututa dagoana. Gizarte Zerbitzuen Mapan eta Gizarte Zerbitzuen Zorroan, zein diran azaltzen da, nor dan eskumenduna, zertan. Uste dot ondo baino hobeto egituratuta dagoala. Nik hor ez dot besterik esan beharrik, baina, tira, gure jarreratik, gure taldearen jarreratik, zera dinogu: badago hobetzerik? Badago zerbitzu gehiago egoterik? Ondo da, baina baldintzatzaile sozialen zatian dago, nire eretziz, hortxe dago honen inguruko mania. Zuk esan egin dozu, oso ondo

esanda, ganera, zera dinozu: “baldintzatzaile sozialen aurka burrukatzea txirotasunaren aurka burrukatzea da”, eta egia da. Benetan uste dozu Foru Aldundi honek, bere eskumenen esparruan, ahal dauan guztia egiten dauala bere eskumenen esparruan desbardintasun sozialak eta txirotasuna desagerrarazoteko? Bere arauak egin eta idazten dauzanean, benetan uste dau kontuan hartzen dauala zelako eragina daukan honek txirotasunaren desbardintasunetan? Ni neu ez nago ados, hau da, ez nator bat baieztapen horregaz. Ez da holan. Beste interes batzuk, beste premina batzuk hartzen doguz kontuan. Zelako eragina dauka herritarrakan gaiotan? Berez, politika zehatz batek desbardintasun sozialak areagotzen dauz ala ez? Ez. Era berean, genero-ikuspegia be ez dogu kontuan hartzen foru-arau guztiak egiten doguzan bakotxean, eta hori araututa dagoala kontuan hartuta. Askoz gitxiago hau. Ostantzean, zelako eragina daukan umeen artean, eta araututa be badago, baina edadebakoen interes nagusirako be ez da egiten. Hori dala eta, hau askoz be gitxiago.

Izan be, zera dinozu: “hori badago, iragarri egin da, Sagardui andreak Osasun Mentalerako Euskal Estrategia iragarri dau”, eta ni neu pozarren nago, azkenean Eusko Jaurlaritzea, eta benetan dinot, lanean hasi dalako eta hau arazo larria dala konturatu dalako eta jardun egin behar dogulako. Ondoetorria Osasun Mentalerako Euskal Estrategiari. Horregaz bat egin beharko geunkeala uste dot, ganera. Izan be, izan be, izan be, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean bertan, zehaztu be egiten da Aldundiak berak eta, bide batez, ganerako aldundiek zer lekutatik parte hartu daikien holako gauzak alkarregaz egiteko orduan. Hau da, badago plana egiterik, eta, horrezaz ganera, badago aldundien ekarpenak kontuan hartzerik.

Halanda be, beste gauza bat esango deusut, Gil andrea, hau da, ni neu oso eszeptikoa naz Eusko Jaurlaritzeak egiten dauzan estrategien betearazpenagaz, eta horixe be esan behar deusut. Bertotik be hori lantzeko aukerea eukitea proponiduteko daukaguzan errazoietakoa bat horixe bera da, hain zuzen be, eta zergaitik esango deusut. Zelan garatu da suizidioaren aurka burrukatzeko estrategia? Tira, ba, apur bat hemen, apur bat han, instituzinoaren arabera. Etxebakotasunaren aurka burrukatzeko, bazterketaren aurka burrukatzeko estrategia? Tira, ba, ni neu, egia esan, holako estrategietan, behintzat, gura dauana atxikitzea eta gura ez dauana ez atxikitzea albo batera ixten danean, tira, ba, ez naz hain eszeptikoa izango, seguruenik.

Inoriza andrea, hara, helburua ez da ezer psikiatrizetea, ez. Kontua da prebentzinorako jarduketarik egiten ez badogu, egoerea zaildu egiten dala eta berez psikiatrizetan dala. Horixe da arazoa, ez dogula karga hori guztia ospitaleetara eroan gura, horixe bera daukagu berbabide. Ez dogu psikiatrizau gura, guztiz kontrakoa, guztiz kontrakoa. Dana dala, egia esan, datuak, eta Bizkaiko datuak emongo deusudaz, emoten daualako zer esan jakin barik itxi zaituana izan dala, bertoko datuak emongo deusudaz. Hara, Bizkaiko nerabeen sarrera psikiatrikoak %50 igon dira pandemian. Bizkaian, nerabeek anorexia nerbiosoagaitik euki dabezan sarrera psikiatrikoak %153,33 igon dira. Pandemiaren ondorioz, beste 20.000 gaixo dagoz Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean. Ez dakit, gitxi dala uste dozu? Nire ustetan, datu horreen bitartez baino ez, tira, ba, baietz uste dot nik, Aldundia ahalegindu egin behar dala Osasun Mentalerako Foru Plana egiten.

Urkaregi andreak esan dauanez, izena gustuko ez badaukazue, beste bat jarri, arazoa horixe bada. Guk zeozer egitea da kontua. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martín. La portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia no va a tomar parte. Señora Gil Llanos, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, barriro be.

Hasteko, esan egingo dot, berretsi egingo dot neure lehenengo agerraldiaren hasieran egin dodan baieztapena. Esan egingo dot sozialistontzat osasun mentala lehentasuna dala. Gure eretxiz, hori herrialde-politikea izan behar da, eta danok horregaz bat gatozala uste dot, tribuna honetan berba egin dogun taldeok, herrialde-politikea izan behar dala esaten danean.

Agirikoa danez, hementxe dagoz aldeak: zelan jorratzen dogun eskumen-mailea, bakotzak zer egin behar dogun geure instituzinoetan. Hara, De Madariaga andrea, zintzotasuna, zintzotasunaren aurrean. Hara, zure ekimena irakurri nebanean, txundituta egon nintzan egun batzuetan, ez nebalako ekimenaren eukia bete-betea ulertzen, ez zuk osasun mentalari buruz berba egitea eta osasun mentalean eragina euki eikien baldintzatzaileei buruz ikuspegi hori emotea, zure eztabaidearen amaiera baino, hain zuzen be, hau da, zuk guri plana egiteko eskatzea, horretarako eskumenik ez daukagunean. Ganera, eskudunak zergaitik ez garan dinot, zuk nire lehenengo agerraldia arretaz entzun bazendu, herrialde-arazoa dala esan deusudalako, eta, herrialde-arazoa danez, instituzino guztiok lan egin behar dogu, bakotzak jagokun arloan, eta guri, Zorroari buruzko Dekretuan holantxe adierazoten dalako, oso zedarrituta dagozan eginkizunak jagokuz. Planen lidergoa, planak egitea Eusko Jaurlaritzearen lana da, ez gurea. Guk ezer egiten ez dogula adierazo gura dau horrek? Ez, esan deusut zer egiten gagozan. Badagoala hobetzerik? Jakina, bada. Pandemiaren osteko aroko ondorioak ebaluetan doguzanean, seguruenik baliabide gehiago abian jarri behar doguzala? Baita be.

Hausnarketa horretatik be, unibersidadeek egin eta guk eskuragarri daukaguzan azterlanetan, badinoskue edade-tarte batean lan egin behar dogula lehentasunez, eta tarte hori Urkaregi andreak aitaturakoa da: edadebakoak eta nerabeak. Hain zuzen be, Osasun Mentalerako Euskal Estrategiaren puntu nabarienetako bat, eta, hasiera batean, nik neuk horretan sinisten dot, ez dot amaitu baino lehen alde aurretik epaituko. Izan be, besteak beste, uste dot adituek osotutako Osasun Mentalerako Euskal Kontsejuan bertan egingo dala, eta horrek bermatu egiten deust orientazino zientifikoa egon daitekeana estrategia horretan. Esan gura nebanaren harira bueltauta, eta bertan daukat konfiantzea, umeen eta gazteen jarduketea nabarmentzen dabe, hain zuzen be. Ganera, orain dala urte bitatik, ez dakit jakingo dozun, umeentzako zein gazteentzako aurrekontua eta plaza-kopurua bitu dira, hain zuzen be, azterlan horreen ondorioz jakina zalako biztanle horreen inguruko arriskua egoana, pandemiak askoz be eragin handiagoa euki ebana eurakan edo pandemiak askoz be gogorrago jipoitu ebazana.

Halanda be, ez nago ados zugaz danok danetarik egin behar dogula dinozunean. Hemen, eskumenak banatuta dagoz seguruenik konplexua dan herrialde honetan. Hara, hain korapilatsua danez, Alderdi Sozialistek behin baino gehiagotan aldatu gura izan dau. Badakit babes handirik ez daukaguna, eta, agian herritarrek gehiengoaren babesa emoten deuskuenean, LHLren eraldaketea sustatuko dogu seguruenik, gauzak beste era batera egokitu daitekezala uste dogulako eta, jakina, gauzak ulertzeko ikuspegi desbardinak dagozala. Dana dala, daukagun arkitektura instituzionala daukagun bitartean, daukagun arkitektura instituzionala errespetau behar dogu. Horrezaz ganera, daukaguzan baliabide ekonomikoak erabili behar doguz egin behar dogunerako, gure eskumenak diranerako, ostantzean mesede eskasa egingo geunskielako herritarrei.

Amaitzear nago. Uneotan Ganbera honetan adostasuna lortzen ez badogu be, zorionez, zorionez, Bizkaiko herritarrek indartutako osasun mentalerako politikak eukiko dabez. Lehenengo eta behin, lehen esan dodanagaitik, hau da, 100 milioi euroko zuzkidurea daukan Osasun Mentalerako Estrategia Nazionala dagoalako, Euskadin Osasun Mentalerako Estrategia barria kaleratuko dogulako eta, estrategia egiten daneko epealdi horreen artean, ez garalako geldi egon. Izan be, lanean segidu dogu, bizkaitarrei ondoizate fisiko eta emozionalean lagundu ahal deutseen politikak indartzeko, eta horregaz geratu gura dot.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Gil Llanos. Señora Urkaregi Etxepare, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días, de nuevo.

No sé, pero he de decir que este debate me parece bastante kafkiano, porque todos/as coincidimos en que se deben reforzar las políticas vinculadas a la salud mental. Todos/as compartimos que Osakidetza se encuentra en el primer nivel, pero que deben participar todas las instituciones. Todos/as compartimos que la Diputación, la Diputación Foral de Bizkaia, sí dispone de servicios, sí cuenta con varios programas de prevención, etc. Por lo tanto, ¿cuál es el problema? Lo he dicho antes. ¿Es el nombre el problema? Sinceramente, no me lo puedo creer, porque a mí me da igual cómo se denomine, pero aquí podemos adquirir un compromiso, para la realización de un diagnóstico, para analizar la situación de los/as menores que se encuentran en centros para menores y adoptar medidas específicas. ¿Quizá lo estemos haciendo? No lo sabemos. Izan be, jakina, aquí el Gobierno sí es concededor de una cuestión, y quienes estamos aquí en la oposición conocemos otra, pero no creo que se trate de ese diagnóstico.

Se debe renovar el convenio existente con Osakidetza, para lo que se deberá examinar cómo están esos centros. Horrezaz ganera, existe una comisión permanente de esos centros. Eso querrá significar algo, pero creo que, respecto a lo que se realiza en el ámbito de la inclusión, Teresa Laespada nos plantea constantemente qué importancia se otorga a las personas con problemas de salud mental en cuestiones económicas. Por tanto, ¿cuál es el problema? Hau da, recopilemos todo eso, no sé, en un plan de no sé qué, y hagamos eso. En mi opinión, es frustrante salir de aquí sin ningún acuerdo, cuando todos/as pensamos que se debe priorizar la salud mental.

Además, foru-planei buruz berba egingo dot, eutsiko ez deusadalako. Nik neuk badakit Alderdi Sozialistek ez dauana bikoxtasunik gura eta legea aldatu gura dauana. Ondo da. Enplegua Eusko Jaurlaritzearen eskumena da, ostera, eta, hemen, Enplegurako Foru Plana daukagu, baina, jakina, Alderdi Sozialistek daroanez, horretan ez dago bikoxtasunik. Etxebizitzarako Foru Plana daukagu, Aldundiak etxebizitzako ezelako eskumenik ez daukanean. Halanda ze, zein da arazoa Osasun Mentalerako Foru Plana egon ez daiten? Tamalez, esan egin behar dot hain lehentasunezkoa ez ei dala eta enpleguak zein etxebizitzek ospe handiagoa edo ez dakit zer emoten ei dabela, baina esan barik doa lehentasunik ez daukana, ostantzean proposamen hau onartuko litzatekealako. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Para concluir el debate, señora Inoriza Bustamante, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **INORIZA BUSTAMANTE** andreak: Muchas gracias, de nuevo.

Ganerako taldeek proponidutako gai batzuei erantzuna emoten ahaleginduko naz, ezin izan dodalako neure lehenengo agerraldian sakondu. Tira, batetik, nahi-ta pandemiaren ondorioz giza talde zaurgarrienetako personen osasun fisikoa jagoteko beste jarduketa batzuei lehentasuna emon jaken, ganerako taldeek adierazo dozuenez eta joan dan apirilaren 4an Osasuneko sailburuak iragarri ebanez, Euskadi osasun mentala jorratzeko estrategia barria hasiko da diseinetan, pandemiaren osteko aroko preminak kontuan hartuta, eta Euskadiko Osasun Mentalerako Aholku Batzordeak jorratuko dau. Horixe da bidea, hau da,

adituen organu bat, Osasun Mentalerako Aholku Batzordea, berbarako, izatea jakintza zientifikoaren eta erespide profesionalaren arabera estrategia jorratzen dauana.

Bestetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazinoen eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzu eta prestazino ekonomikoen antolakuntzea arautzen dauan Zorroari buruzko Dekretuaren 33.2. artikuluan azaltzen dira Bizkaiko Foru Aldundiak eskumenen esparruan daukazan tresnak, prebeniduteko eta giza talde zaugarrienen nahiz euren ingurune hurbilenaren bizi-kalidadearen hobekuntzea bultzatzeko. Honako honeetxek dira zuzenean: atsedenaldea, eguneko arretarako zentroak eta Gizarte Zerbitzuen Zorroan agertzen diran era bateko eta besteko zerbitzuak eta prestazinoak.

Bestetik, nabarmendu egin behar da osasun mentala sustatzeko neurriak zeharkakoak dirala, ez asistentzialak eta honako hauxe kontuan hartzen dabela: hazkuntza ona, atxikitasun goiztarraren garapena edo estresaren murrizketea. Alde horretatik, ekimenak garatzen dagoz osasun-zentroetan, gurasotasun onaren edo estresaren murrizketearen inguruko prestakuntzearen zein ezarpenaren bidez; eta, ikastetxeetan be bai, nerabeen artean estresa kontrolatuko eta erresilientzia handitzeko trebetasunak erabiltea helburu daukien programen bidez.

Azkenik, neure lehenengo agerraldian esan dodanez, Gizarte eta Osasun Arretarako Euskal Kontsejuaren eskumena da Euskadiko Gizarte eta Osasun Estrategiaren koordinazioa, definizioa eta betearazpena zuzentzea. Alde horretatik, foru-aldundiok, jagokuzan eskumenen bidez, osasun mentaleko arazoak daukiezan edo eukiteko arriskuan dagozan personentzako jarduketak garatzen gabiliz eta segidu egingo dogu, geure eskumeneko gizarte-zerbitzuen bitartez.

Amaitzeko, De Madariaga andrea, zeozer egin daigula dinoskuzuenean, egin egiten gabiliz, bada. Por eso, tal y como ya lo he anunciado, mi grupo va a votar en contra de esta Proposición No de Norma para la puesta en marcha de un Plan Foral de Salud Mental. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Inoriza Bustamante. Una vez concluido el debate, vamos a someter a votación la Proposición No de Norma.

¿Votos a favor? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por tanto, el resultado es el siguiente: se han emitido 47 votos en total. Ha habido 15 votos a favor, 32 votos en contra y ninguna abstención. Por tanto, no se ha aprobado la Proposición No de Norma.

Una vez agotado el Orden del Día, se levanta esta Sesión Plenaria. Que tengan un buen día.

Batzarra 14:10ean amaitu da.

Se levanta la sesión a las 14:10 horas.